




Arropan, krematan, elikagaietan...

Nanoteknologiak ez du frogatu segurua denik



- **Larrun** Egiaren Batzordeak munduko gatazketan, Euskal Herrirako irakasgai
- **Altabizkarko Kantua** Orreagako batailaren poema faltsua
- **Zer gertatu zen Malvinetan?** Argentinako gerlari ohi baten testigantza
- **Maite Goñi** «Irreal da, gelan sartu eta Internet-mundua ixten zaie ikasleei»
- **Michel Iturria** «Politikaren dekadentzia altxor agortezina da satira grafikorako»
- **Frantziako presidentetzarako bozak** Hollande garaile lehen itzulian

Apirilaren **26**an
eskuratu CDa BERRIArekin
zure kioskoan



+ **2€**

Gernika (1937-2012)

MIKEL LABOA

Gernika (Lekeitio 4, 1972)

Bi bertsioen arteko elkarrizketa

- **Lehen bertsioa** 1974an grabatua.
Ahotsa eta gitarra: Mikel Laboa
- **Azken bertsioa:** 1999an zuzenean grabatua.
Orkestazioa: Carlos Puig
Euskal Herriko Gazte Orkestra,
Donostiako Orfeoia
eta Mikel Laboa,
J. Antonio Sanz Alfaroren
zuzendaritzapean.

**14 minutuko
pieza berria**



berria
elkar



Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produkzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



• **NON ZER** •

2012ko apirilaren 29a, 2.320. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Laura Garrido:** «Ez dago parekatzerik ETA eta Francoren diktadura». SUSTRAI COLINA / 4

Asteko gaia

- **Nanoteknologia.** Zalantza asko sortzen duen iraultza atarian. UNAI BREA / 5

Pertsonaia

- **Michel Iturria:** «Presentsako marrazkia muturrean jotako krotxeta da». SUSTRAI COLINA / 10

Gaiak

- **Ettxerako lanak eskolan.** Ohitura lagungarria ala alferrikako gainkarga? MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 15
- **Ernesto Alonso, Malvinetako gudari ohia:** «Inperialismoari eman zion aukera Malvinetako gerrak». GORKA BERASATEGI / 16

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 19
- Ez dago «Deus ex Machina»-rik. JOXEMARI CARRERE / 20
- **Txandan** Lehentasun zerrenda. ANDONI MUJICA / 20
- Oinarrizko errentagarritasuna. IÑAKI ODRIOZOLA / 21
- **Hiruko txikian** *Sautrela* hil da. JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- **Bertso berriak** Borobilak. MIREN AMURIZA / 22

Erdiko kaiera

- **Musika.** Inork ordainduko al du nire diskoaren truke? JAGOBA SALVADOR / 23
- **Liburuak** SAIOA RUIZ GONZALEZ / 26
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 27
- **Ezpalak** JON TORNER / 28 • **Abarrak** GORKA BEREZIARTUA / 29
- **Ihesi Baiona, Bastida, Bidaxune.** Aturri hegiko Jerusalem. ITXARO BORDA / 30
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34
- **Osasuna** JABIER AGIRRE / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Altabizkarko kantua.** Oihu bat aditua izan da. SANTI LEONE / 39
- **Frantziako presidentetzarako bozak.** Sarkozyk gerra psikologikoa Hollande faboritoari. MIKEL ASURMENDI / 42
- **Maite Goñi:** «Gazteek albokoarekin nola hitz egiten dute? Bada, Tuentin berdin». ONINTZA IRURETA AZKUNE / 43
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46
- **Maltzagatik** XABIER LETONA / 47
- **Net Hurbil** Aljeriakoak oraino soldadu frantsesei loa galarazten die. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- Bobbyak ala zipaioak. XABIER MENDIGUREN ELIZEGI / 50



“Ez dago parekatzerik ETA eta Francoren diktadura”

Laura Garrido

Aro berrian omen gaudenez...

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Alex Larretxi

Irentsi duzu Legebiltzarreko lehendakaritzarako zure partez Arantza Quiroga izendatu izana?

Aukera aniztasuna sanao izateaz gain, arraroa litzateke maila horretako postu baterako izen bakarra egotea mahai gainean.

Zure alderdiak euskarari zegokiona eman balio zurea zatekeen postua.

Euskara garrantzitsua da PPrentzat. Ez dugu ahaztu behar, ordea, erkidego elebidun batean gaudela eta bakoitzaren askatasuna errespetatu behar dela. Bai gaztelania bai euskara hizkuntza ofizialak dira.

Barkatu, askatasuna bi hizkuntzak jakin eta bakarra hitz egiteko hautua da, ez bakarra jakin eta huraxe erabiltzea.

Euskarak batzen gaituena izan behar du. Horretarako, euskaraz hitz egiteko eskubidea bermatu behar da, baina horrek ez du esan nahi funtzionario guztiek euskaldunak behar dutenik. Gainera, ez da soilik PPren kontua. EAJn ere badaude euskaraz ez dakitenak: Anasagasti, Xabier Aguirre...

Baina horiek ez dira sekula Lizartzako zinegotzi izan, zu bai.

Egoera berezia izan arren legearen barruan gobernatu genuen, lizartzarren ongizatea helburu. Ez gaitezen engaina, Euskadiko edozein herritan PPko zerrenda bat aurkeztu

ahal dugunean lortuko dugu elkarbizitza sanao.

Legeari eta euskal gizartearen nahiari hainbeste erreparatzen diozunez, hamar euskal herritarretatik zazpi presoen hurbiltzearen alde dagoela dio Eustatek.

PPk ez du zalantzan jartzen birgizarteratze politika legearen barruan dagoenik, baina denok dakigu horretarako presoek baldintza batzuk bete behar dituztela. Orain ere ETA da presoak kontrolatuz politika horiek aplikatzeko zailtasunak jartzen dituenak.

Kondenak gora eta kondenak beheara, zuek noiz kondenatu duzue oraintsu arte zuen ohorezko presidente Manuel Fragak zerikusi zuzena izan zuen frankismoa?

Alderdi Popularrak ez du arazorik Francoren diktadura kondenatzeko. Ez zaizkit erregimen totalitarioak gustatzen. Horrexegatik ez zait gustatzen ETAk proiektu totalitario bat armen bidez inposatu nahi izatea. Ez dago parekatzerik ETA eta Francoren diktadura.

Laura, Madril zure zain dago!

Ez pentsa halakorik daukadanik buruan. Momentua bizi dut eta euskal politikagintzak bizi nau. Nire ibilbidea hemen egitea gus-tatuko litzaidake. ■



Nanoteknologia

Zalantza asko sortzen duen iraultzaren atarian


Azken hamarkada bitan, materia atomoz atomo eta molekulaz molekula manipulatzeko gaitasuna garatu dugu gizakiok. Hartara, gauzatu egin da 1950eko hamarkadan Richard Feynman fisikari ospetsuak irudikatutakoa, berak izen hori eman ez bazion ere: nanoteknologia. Aukera berrien eskutik datoz arriskuak ordea. Nanoproduktuen toxikotasunaz oraindik behar beste ez dakigula salatu dute nazioarteko zenbait taldek.

UNAI BREA

MATERIAREN MANIPULAZIOA nanoeskalan, horra nanoteknologiaren definizio laburra. Nanometro bat milimetro baten milioirena da; bestela esanda, nanoeskala atomo eta molekulen eskala da, CIC Nanoguneko zuzendariak, Jose Mari Pitarkek, azaldu digunez. “Atomoak eta molekulak XX. mendearen hasieratik aztertu ditugu, eta garai horretan garatu zen mekanika kuantikoa ere. Baina artean ez ginen gai eskala horretan materia


manipulatzeko”. Hori geroago etorri zen, 1980ko hamarkadaren amaieran, tunelmikroskopioari esker, besteak beste.

Nanoteknologia terminoa ez dagokio, hortaz, produktu edo teknika jakin bati, neurriari baizik. Teknologiaren esparru guztietan erabil daiteke, eta erabiltzen ari da, nanoteknologia. Fisikariak, kimikariak, biologoak... Diziplina ugariko zientzialariek dihardute “nano”-an. Nonahi ditu aplikazioak, eta





JAVIER LARREA



1990ean, IBMko zientzialariek lortu zuten enpresaren izena idaztea 35 xenon atomo erabilita. 22 orduko lana eskatu zien balentria hori egiteak, baita goian ikus dezakezen irudia lortzek ere, tunel mikroskopio bat baliatu zuten. Ezkerreko argazkian, Nanoguneko ikertzaile bat ageri da lanean.

Erakargarri bezain arriskutsua


Nanoeskalan mekanika kuantikoaren ondorioak guztiz agerikoak dira. Azalak nagusitzen dira –nanoegitura txiki batean atomo gehienak azalean egongo dira– eta, makroeskalan ez bezala, propietate fisikoek eta kimikoek tamainaren menpekotasuna dute. Haatik, kualitate horrek badu bere ifrentzua askoren iriziz. “Nanomaterialak ikertzaileentzat hain erakargarriak izatea eragiten duten arrazoi berberak (tamaina txikia, mugikortasuna, ezohiko propietateak) eragiten dute inguruarentzat eta giza osasunarentzat arriskutsuak izatea”, irakur daiteke ETC taldeak 2011n argitaratutako *Zer gertatzen da nanoteknologiarekin? Erregulazioa eta geopolitika* txosten mardularen aitzin-solasean. ETC nazioarteko taldea da, teknologia berrien inaktuak aztertzen dituen. Aspalditik eskaintzen diote arreta nanoteknologiari: 2002an nanoproduktuen merkaturatzeari moratoria ezartzea eskatu zuten. Diotenez, ordutik hona egindako ikerketek are zalantza gehiago azaleratu dute teknologia mota horrekin sor daitezkeen produktuen segurtasunaz. Eta ez zalantza soila: zenbait nanopartikularekin harremana izateak ondorio kaltegarriak dauzkatela frogatzen duten ehunka ikerlan egin dela dio ETCk.

Jose Mari Pitarke ez dator bat. “Nanoteknologia esparru berria den heinean, onura eta arriskuak ekar ditzake, noski; eta gure eginkizuna da nanoteknologiaren garapen ardurasua bermatzea. Ez dago arrazoirik nanoteknologia arriskutsuagoa dela pentsatzeko; nanoa ezberdina da, baina ez nahitaez arriskutsuagoa. Naturak nanomaterialak sortzen ditu etengabe, eta izaki bizidunok ere nanomaterial ez gaudela. Nanopartikulak nonahi ditugu gure inguruan. Gaur egun, nanoteknologiari esker, egitura berriak sor ditzakegu; eta nanoegiturak barne hartzen dituzten produktuk kaleratu aurretik, segurtasuna bermatuko duten protokoloak garatu behar ditugu. Tek-

gehiago izatea espero da. Hori bai, dagoeneko urrats asko egin den arren, nanoteknologiaren benetako iraultza etortzeke dagoela uste du Pitarkek.

“Nanoeskalan, materiaren propietateak ez dira makro eta mikroeskalakoak bezalakoak, eta horrek aukera berriak eskaintzen dizkigu –dio Nanoguneko zuzendariak–; besteak beste, prozesuak bereizmen atomikoz gauzatu ahal izango dira, eta horrek bidea zabalduko du prozesuak modu eraginkorragoan garatzeko; azken batean, materia eta energia kontsumoa txikiagotuko da, eta hondakin-sorkuntza murriztu”. Gutxiren truke asko eskaintzea, esaldi horrekin laburbiltzen ditu Pitarkek nanoteknologiaren abantailak. Izan ere, garapen jasangarriaren gakoetako bat izango delakoan dago.

Nanoteknologiak sor ditzakeen aurrerapausoen zerrenda mardula eman digu Pitarkek: “Konputagailu azkarragoak; garraioaren hobekuntza –erregaiei ezaugarriak hobetu eta materialak arindu ahal izango dira, kontsumoa eta gas igoerpenak txikiagotuko baitira–; medikamendu selektiboagoak, alboefektu txikiagokoak, terapia berriak, diagnostikorako tresneria hobekuntza...”.



Hainbat kontsumo produktutan aurkitu daitezke nanomaterialak edo nanogailuak: tenis pilotak, erraketak, eskuko telefonoak, eguzki-kremak... Kopuru zehatza ematerik ez badago ere, ofizialki nanoteknologiaz egindako 1.500-2.000 produktu dago merkatuan. Benetan askoz gehiago dira, ETC taldearen ustez. "Nanoteknologiaren eta hark sortutako produktuen merkatuaren balioa 12.000 eta 224.00 milioi dolarren artean dagoela kalkulatu da, baina lehenbiziko zifra gehiago hurbiltzen zaio errealitateari".

nologia garatzeaz batera, beharrezkoa izango da estandar berriak definitzea, terminologian, saioetan eta tresnerian eragina izango dutenak; eta baldintza hori beharrezkoa izango da nanoteknologiak ahalbideturiko produktuak merkaturatu ahal izateko eta, bereziki, kontsumitzaileen eta ingurumenaren babeserako".

Zertan da segurtasuna?

EAERI dagokionez –horixe baita Nanoguneren lan eremua–, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Nanobasque estrategia segurtasunaren alorrean egiten ari den lana aipatu du Pitarkek. Besteak beste, Nanozientzien eta Nanoteknologien Behatokia sortu dute, nanomaterialen bizi-ziklo osoko inpaktuen analisia egiteko eta gizarteari komunikatzeko helburuarekin.

Autore askok, aldiz, ez dute uste nanoteknologiaren segurtasunari behar bezalako inbertsioa eskatzen zaionik. ETCren txostenera joko dugu oster. Hor esaten denez, azken hiru urteetan argitaratutako azterketa askoren ondorio nagusia da nanosegurtasunaren eremuan asko dagoela egiteke. "Nanomaterialek inguruan duten eraginaz ez dakigu ia ezer, eta ekosistema zein gizakientzako esposizio-maila seguruak ezezagunak dira. 2008an, Britainia Handiko Ingurumen Kutsaduraren Errege Batzordeak ebatzi zuen oso zaila dela nanomaterialen segurtasuna zehaztea, hain da handia haien toxikologiaz dugun ezjakintasuna".

"Nanomaterialek inguruan duten eraginaz ez dakigu ia ezer, eta ekosistema zein gizakientzako esposizio-maila seguruak ezezagunak dira"

ETC TALDEA

Azterketa horietako bat aipatzekotan, Erresuma Batuko Gobernuak finantzaturako EMERGNANO ekimenarena aipatu behar genuke. Esan zutenek, ez dago informazio nahikorik dagoeneko merkatuan dauden zenbait nanomaterialen arriskua neurtzeko: titanio dioxidoa, karbonozko nanohodiak, burdin, zink eta zerio oxidoak, urre eta zilar nanopartikulak eta beste hainbat. 2008an

Gilberto Dupasek, Nazioarteko Koiuntura taldearen koordinatzaileak idatzi zuenez, AEBetako FDAk berak aitortu egin zuen zailtasunak dituela honezko kontsumitzaileen eskuetan dauden nanomaterialen segurtasunari buruzko protokoloak ezartzeko. Bestalde, ETCk dio nanoteknologiari eskaintzen

zaion inbertsioaren oso portzentaje txikia erabiltzen dela segurtasunaren garapenean, datu zehatzik ematen ez badute ere; besteak beste, salatzen dutenez, industrietatik datorren informazioa lausoa izaten delako maiz.

Erregulazio ahulegia salatu dute

2008an, Segurtasun Kimikoaren Gobernu Arteko Foroak, Dakarren (Senegal) egindako biltzarrean, adierazpen gogorra plazaratu zuen nanoteknologien gainean. Nazioarteko



marko erregulatzailer baten falta salatu eta zuhurtzia printzipioa aplikatzeko deia egin zuten. Erregulazioari dagokionez, haren ahu-leziaz datu ugari ematen ditu *Zer gertatzen da nanoteknologiarekin?* txostenak.

Kontuan hartu behar da, lehenik eta behin, azken urteetan finantzazio pribatua publikoari gailendu zaiola nanoteknologiaren ikerkuntzan. Enpresek apustua egin dute “nano”-aren alde, eta munduko gobernu askok ere dirutza handiak inbertitu dituzte azken hamarkadan. Orobat, dio ETCK, produktuak lehenbailehen merkaturatzera jalgitzeko politika da nagusi, eta horrek ekarri du erregulazioa oso zorrotza ez izatea. Munduko herrialde gehienetan borondatearen oinarritutako ebaluazio-sistemak jarri dira abian. Enpresei aukera ematen zaie, nolabait esateko, garatzen dituzten produktuei buruzko informazioak helarazteko gobernuari. Industriaren erantzuna oso epela izan da ordea, ETCren esanetan.

Egoera horrek, beti ere iturri beraren araberak, ideia batean dauka oinarria: legislazio “biguna” hobea da hasi berria den teknologiaren garapenari oztoporik ez jartzeko. Gobernuak hitz ematen dute ez dutela derri-gorrezko neurririk ezarriko, eta ordainetan industriak laguntzeko konpromisoa hartzen du. Aipatzekoa da AEBetako Gobernuak elikagaien segurtasuna bermatzeko ardura daukan FDAri egindako gomendioa, teknologia merkatura ahalik eta azkarren iritsi dadin errazteko.

EBko Legebiltzarrak nanomaterialak dauzkaten kontsumorako produktuetan etiketa jartzea eskatu zuen 2009an, baina oraindik ez da gauzatu

Etiketa espezifikoak nanomaterialentzat?

Gauzak horrela, eta honezkero ehunka nanomaterial eta nanogailu ditugula kontsumo arrunteko produktuetan zein erabilera industrialetan (konputagailuak, eskuko telefonoak, erregaientzako katalizatzaileak, lainoen aurkako ispiluak, beren burua garbitzeko gai diren beirak, tenis pilotak, eguzkitik babesteko kremak...), produktu horiek etiketatze espezifikoak eduki dezaten eskatu dute talde askok, tartean, nola ez, ETCK berak. 2009an, Europar Batsuneko Legebiltzarrak kontsumorako produktuetan etiketa ipintzea eskatu zuen, EBn nanoteknologia arautzeaz arduratzen den batzordeari kritika gogorra egiteaz eta arriskutsuak izan daitezkeen materialak merkaturatzeko debekua galdatzeaz batera. Nano-osagaiak dauzkaten elikagaien komertzializaziorako moratoria ere eskatu zuten.

Alabaina, Europako Batzordeak ez zituen aintzat hartu eskariok. 2010eko azaroan, berriz, atea ireki zioten etiketatzeari, baina oraindik ez da halakorik gauzatu. Moratoriaz den bezainbatean, hasierako jarrerari eutsi zioten, argudiatuz arriskuen ebaluaziorako gaur egun indarrean dauden metodologiak aski direla nanoteknologiaren ekoiztutako elikagaien segurtasuna bermatzeko.

Gai horiez zer iritzi duen galdetu diogu Jose Mari Pitarkeri. Hasteko, ez du uste nanomaterialak dauzkaten produktuetan etiketa berezirik jartzea beharrezkoa denik, “beharrezkoa dena da hartu beharrezko segurtasun neurri guztiak hartzen direla bermatzea eta

Zein neurritatik behera da nanoa?


Nanoeskalaren eremua 0,1 eta 100 nanometro bitartekoa dela dio Jose Mari Pitarkek: “0,1ean atomoa dago; DNAren helize bikoitzaren diametroak 2,5 nanometro ditu, erribosomak 10, eta birusak 100 nanometrotik beherakoak izan ohi dira”. Zergatik 100? “Hortik behera, mekanika kuantikoak aurreikusten dituen energia-maila kuantizatuak ageri-agerian jartzen dira eta sistemak makro-eskalako ohiko ezaugarrien aldean propietate nabarmenki ezberdinak erakusteko adinako txikiak dira”.

ETC taldearen *Zer gertatzen da nanoteknologiarekin?* txostenak zalantza jartzen du 100 nanometroren muga. Diotenez, neurri hori AEBetako Nanoteknologiaren Nazio Ekimenak ezarri zuen 2001ean, eta harrezkeroztik arrakasta izan du, baina toxikologiaren ikuspuntutik muga arbitrarioa da. “2009an, Europar Batasuneko SCENIHR batzordeak —osasunaren aurkako mehatxu berriak ditu aztergai— esan zuen nanoaren

definizioa argitzeke zegoela oraindik”.

Irizpide bateratu ezaren hainbat adibide aipatzen ditu txostenak. 2010ean, Erresuma Batuko Lorden Ganberak espresuki errefusatu zuen 100 nanometroren muga, eta gomendatu zuen nanopartikulen erregulazioak 1.000 nanometro baino gutxiago zeukan guztia hartzea bere gain. Suitzako Osasun Publiko Bulego Federalak eta Ingurumen Bulego Federalak 500 nanometroko muga gomendatu zuten. Erresuma Batuko Lurzoruaren Elkartek, 200ekoa, eta Lurraren Lagunak elkarte ekologistak, 300ekoa.

Jose Mari Pitarkek uste du nanoeskalaren goimugari buruzko eztabaida antzua dela: “Esan ohi dugu nanoeskalari gaudela propietateek partikularekin tamainarekiko menpekotasuna dutenean, eta menpekotasun hori apenas nabaritzen den 100 nanometrotik gorako partikulen kasuan”.



JAVIER LARREA

toxikoa den oro alde batera uztea; edonola ere, produktuaren osagaiak zeintzuk diren adieraztea lagungarria izaten da beti”. Seguritasunaz oro har, ez dauka datu zehatzik esateko munduan zenbateko inbertsioa egiten ari den, baina gogorarazi digu badirela arlo horretan beren-beregi lan egiteko sortutako nazioarteko zentroak. Adibide modura aipatu digu CRN (Nanoteknologia Arduratsurako Zentroa). Ñabardura bat hala ere: “Nanoteknologia arduratsua kontzeptuak ez dio hainbesteko garrantzia ematen materialen balizko toxikotasunari —erabat baztertzen ez badu ere—, baizik eta nanomakina molekularrak garatzeak ekar litzakeen ondorioei”.

Top-down, bottom-up

Arestian esan dugunez, Pitarkek uste du nanoteknologiaren benetako iraultza etortzeko dagoela oraindik. Gauzak hobeto ulertzeko, eta hain sektore zabalaz ari garelarik gehiegi sinplifikatzeko arriskua dagoela onartuta ere, esan dezagun prozesu mota bi daudela nanoteknologian: goitik behera eta behe-tik gora, edo top-down eta bottom-up, ingelesez. Nanoteknologiaren etorkizuna, segurutik, bien konbinaziotik etorriko da, Jose Mari Pitarkeren esanetan. Lehenbizikoa-ren funtsa miniaturizazioa da, eta ezagun dira horretan egindako aurrerapausoak. Gaur egungo ordenagailuetan, esaterako, hoguei nanometroko zabalera daukaten milaka milioi transistore daude txip baten barruan.

Bottom-up prozesuak konplikatuagoak dira, askoz helburu handinahiagoak dituzte,

Goian, CIC Nanogune-n hartutako argazkia. 2006an abiatu zen zentroa, Jose Mari Pitarkeren gidaritzapean, eta gaur egun 70 ikerlari inguru ari dira bertan, horietatik bederatzira iraunkorrak, eta gainerakoak doktoregoa eta doktorego ondokoa egiten ari diren ikasleak.

eta garatzekotan, horiek bai, sekulako iraultza ekarriko lukete. Funtsean, xedea da beren kabuz antolatuko diren sistemak sortzea. Naturan gertatzen den bezala, baina guk nahi dugun erara antolatzea. “Adibidez, izaki bizidunon oinarritzko adreiluak, proteinak, erribosomek ahalbideturiko autoantolaketa prozesu baten bidez sortzen dira; erribosomek, nanoeskalako objektuak direnak, benetako nanomakina molekularrak ditugu”. Nanomakina horiek, nolabait esatearren, erribosoma artifizialak lirateke, atomo eta molekula guri komeni zaigun eran antolarazteko programatuak. Zientzialari batzuentzat zientzia-fikzioa da hori, beste askorentzat ez. Eta horren arriskua, CRNren kezka, gaitasun hori duten makinek gure kontrolpetik ihes egitea litzateke. ■



Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)



943 453 588 · www.sigacus.com

• PERTSONAIA •

Michel Iturria

«Presentsako marrazkia muturrean jotako krotxeta da»

Erosi liteke egunkari bat marrazki batengatik soilik?

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco



Behin batean, 1950eko hamarkada hastapean...

14na urterekin Bordelera mudatu behar izan zuten guraso euskaldunen seme marrazkizale porrokatua nintzen. Haurtzaro ttipia da marrazkiaren urrezko adina. Haurrek ez dute artea egiteko marrazten, elkarri istorioak kontatzeko baizik. Gainera, pasadizo horiek zirrimarratu ahala bizi egiten dituzte. Horixe da marrazketaren esentzia. Ziur nago zinezko marrazkilariak, prentsakoak zein komikilariak, eboluzioaren fase horretan geratzen garela betiko. Gure etxean apenas zegoen libururik baina ez zen egunkaririk falta. Izugarri elikatu naiz Sempé eta Chaval bezalako maisuengandik. 10 urterekin garbi neukan marrazkilari izan nahi nuela. *Cartoonist* da ingelesez ikasi dudana lehen hitza. Egun osoa pasatzen nuen marrazten. Prensako zein komikietako irudiak kopiatuz trebatzen nintzen. Lizeoko marrazketa irakasle gehienek baztertu egiten ninduten ordea, irudi klasiko eta konbentzionalagoak zor nizkielakoan. Hor konprenitu nuen Arte Ederrek ez nindutela asebeteko. Horrexegatik, Zuzenbidea ikasia eta marrazkilari autodidakta naiz.

Sud Ouesten nola sartu zinen ikusita, bokazioa baino gehiago zen zurea.

Garai gozoagoak ziren. Egunkari handietan ez zegoen alarmarik, ez seguratarik, eta sarre-
ra eta erredakzio-buruaren artean filtro gutxi batzuk baino ez. Nagusiarekin hitzordu bat hartu, lizeotik atera, eta marrazkien arduradunaren aurrean plantatu nintzen. Ene marrazki afusak erakutsi nizkion, baina ez ninduen bota. Alderantziz, armairua zabaldu, eta Cha-

val eta Sempé nire idoloen marrazketa prozesua nolakoa zen azaldu zidan. Zur eta lur utzi ninduen. Hamabost egun berantago hantxe nintzen berriz, ikasitakoa praktikan jartzen zuten irudiak karpetan. Sarri-sarri joaten nintzairen, ahuldade une batean marrazki bat argitaratu zidaten arte. Hortik landa, pixkanaka etorri da dena. Gaurko begiekin aztertuta zientzia fikzioa ematen du. Orain, inork ez du gaztetxo hasiberri batekin denborarik galtzen, eta egiari zor, egunkarietan ere marrazkientzat geroz eta toki txiki eta jakinagoa dago. Prensako umorezko marrazkilariak desagertzear gauden espeziea gara. 1974an eskuratu nuen marrazkilari politikoaren karneta. Ordutik hona, kazetari kopurua laukoiztu egin da, eta sei marrazkilari politiko gehiago baizik ez gara. Ez da egon arabera garapenik.

Zein da zure marrazkien papera?

Kazetaritza egiteko beste modu bat da. Batzuek idatzi egiten dute, bestetuek filmatu edo argazkiak hartu, eta nik marraztu. Napoleonek zioen krokis txiki bat diskurtso luze bat baino eraginkorragoa dela, eta ni sinetsita nago ideia bat pasarazteko ez dagoela prentsako marrazkia baino hoberik. Alabaina, kazetari konbentzionalak pentsaera arrazional bat garatu eta argumentu zerrenda bat harilkatu dezake, ados egon ala ez, ikuspegiaren jatorria agertzeko. Nik ez. Prensako marrazkiak ez du ñabardurarik onartzen, muturrean jotako krotxeta da. Horrek babesik gabe uzten zaitu, zure burua defendatzeko askoz baliabide gutxiagorekin, eta ardura goenera behartuta zaude. Edozer adieraz dezakezu marrazki bidez, baina etengabe neurtu behar duzu testuinguruaren hotz-beroa. Esaterako, Tolosako sarraskiaren ustezko egilea etxean inguratzen dutenean, hanka puntetan marraztea dagokizu, zuhurtzia arduratsuz. Inork ezer ez dakienean ezin dituzu hipotesietan oinarritutako lainoak sortu. Testuinguru hori aintzat hartzea da zure ideiak pasarazteko bide bakarra. Erreakzio kolektiboaren itzultzaileak gara.

Nekeza da noiznahi hanka sartu dezakezula onartzea?

Zuhurtziaren sena garatu egiten da, baina ez pentsa, oraindik ere zientzia politikoetako ikasle bat naizen irudipena dut. Egunkari anitz irakurtzen dut, artikulua andana moztan, artxibatzen... Ezinbestekoa zait kultura politiko zorrotz eta irizpideduna elikatzea. Ibilbide oso baten esperientziak eta eskarmentuak ere anitz leuntzen didate bidea. Tolosako hiltzailearen kasura itzuliz, adibidez. Orain hamar urte oso egoera berdintsuan nengoen nire marrazteko mahaiaren aitzinean ekintzaile

Nortasun agiria

Diasporako euskaldun hau 1946an sortu zen Bordelen. Marrazkilari iaio, eta prentsako marrazkiaren maisu, 1964an argitaratu zioten lehen marrazkia *Sud-Ouest* egunkarian, 1974tik gaur arte etengabeko kolaborazioan dihardu, eta orotara ia 13.000 marrazki argitaratu ditu. 1989an, Frantziako umore zitalaren eta Asanblea Nazionalak ematen duen umorearen saria irabazi zituen, eta garai hartako hauteskunde gauak zuzenean ilustratzen zituen Antenne 2-n. Horrez gain, *Les Rubipèdes* komiki bilduma ezagunaren egilea da, eta Bordeleko Akitaniako museoak bere ibilbide osoa zeharkatzen duen erakusketa zoragarria eskaintzen dio ekainaren 3ra bitartean. www.iturria.blogs.sudouest.fr-en daude bere marrazkiak ikusgai.

zoro batek bilkura-areto batean zortzi zinegotzi erail zituenen. Pentsa, orduko marrazkia errepikatu nezakeen. Bertsolariaren oso antzeko mekanika eta funtzionamendua da nirea. Gaurkotasunak arazo bat pausatzen dit egunero, eta nik egun ona ala txarra izan, aldiro erantzun bat marraztu behar dut. Horregatik esaten dut nire lanaren zati handiena ideia atzematea dela, eta marraztea azkenburukoa. Ideia aski goiz otu zaidanean eta marrazkia fintzeko garaiz nabilenean, zoriotsua naiz, eta bestela ba... Horixe da generoaren legea, horixe dagokidana. Denbora gehiago izango banu aspertu egingo nintzateke, eta azkar sortzeko premiak esna eta bizirik mantentzen nau.

Zer harreman duzu politikarekin? Eta politikariekin?

Politikaren degradazioa, amerikanizazioa, hor dago. Egun, askoz gehiago da unean uneko erreakzioen kontrabandoa, ideien talka baino. Hori hala, iduri luke tarte estuagoa uzten diola marrazkilariari, baina dekadentzia hori altxor agortezina da satira grafikorako. Botereak edozein gertakariren aurrean lege berri bat sortzeko duen joerak, edo isilik ez egoteagatik egindako adierazpen erridikuluek, urregorri bila jartzen gaituzte etengabe. Politikariekiko harremanari dagokionez, lepoa jarriko nuke marrazkilari batek ez duela hurbilegi egon behar politikariengandik. Politikariak seduktoreak dira definizioz, limurtzailak. Maila on samarreko agintari batekin bazkaltzen baduzu beti utziko dizu hausnarrerako esaldi pareta, eta nahi ala ez, horrek asko baldintzatzen du zure lana. Egunero zirikatzeak —eta zikiratzeak— ez du esan nahi miresten ez ditudanik. Alderantziz. Horregatik nahiago dut ez hurbildu. Gainera, nire kazetari lagun bidez iristen zaizkit euren komentario eta gorputzaldiak. Ez dut sekula ahanztziko, Bordele bankarrotaren amildegian jaustear zegoen sasoiari, Chaban-Delmas orduko alkate ospetsuak, nigatik botatakoa: “Esaiozue eltxoari utz nazala bakean, ziztatu dezala beste bat!”. Hori baino laudorio ederragorik!

Nahi duena nahi bezainbat ziztatu dezake eltxoak?

40 urte hauetan ene askatasuna handitzen joan da. 1974an, Pompidou lehendakaria hil eta kanpaina presidentzialean eguneroko kolaborazioari ekin nionean, mesfidantzak zeuden, nire marrazki guztiak zuzendariaren bulegotik

“Botereak edozein gertakariren aurrean lege berri bat sortzeko duen joerak, edo isilik ez egoteagatik egindako adierazpen erridikuluek, urregorri bila jartzen gaituzte etengabe”

“Egunero ideia bakar bat besterik ez dut, bala bakar bat, eta ongi aukeratu behar dut nor jo”

pasatzen ziren. Pixkanaka, kazetari arduratsua nintzela ohartu ziren, eta zuzendariak erabaki beharrean erredakzioaren gainbegiratuarekin funtzionatzen hasi ginen, nire espazioa lortu eta nire eremu librea irabazi arte. Orain, arazo bat baldin badago baizik ez didate hots egiten eta nik argitaratzeko erantzuten diet. Zergatik? Eremu aske horren espiritua biziki ongi kontrolatzen dudalako. Arras ongi dakit ezin dudala ez-dakit-nor aita santua sodomizatzen

marraztu. *Charlie Hebdo* da karikaturista eta probokazioaren kazeta, ez *Sud Ouest*. Nirea beste lan bat da, karikatura editoriala, eta ez naiz konbentzitu parrokia batentzat ari. Nik ezker muturretik hasi eta Marine Le Pen bozkatzen duten irakurleak dauzkat parean. Nire marrazkiak denei iradoki behar die zerbait, eta ariketa delikatu horretan, arrantzale

bat baizik ez naiz. Amua botatzen dut, arraina harrapatzen saiatzen naiz, baina ezin dut arraina lehorreratu aurretik haririk puskatu. Hori hala, ez uste aita-santuaren sodomia ezin marraztuta autozentsuratzen naizenik. Bestelakoa da nire estiloa. Ez daukat Berlusconi txilibitua, gezurteroei sudurra nola, luzatzen zaiola marraztu beharrik. Hori denok ikusten dugu marrazkian ageri ez arren.

Zure eremu librearen espirituaren jabe izanik, zure marrazkiek eragingo dutena aurreikusten duzu?

Bai eta ez. Esaterako, behin hartz zuri bat marraztu nuen iceberg baten puntan ontzi bateko marinelel “Pirinioetan lana kausitzen badidazue prest nago beltzez tindatzeko!” esaten. Klima aldaketaz hitz eta pitz ari ziren batean marraztu nuen, baina ez zitzaidanez bereziki gustatzen, karpetan gorde eta beste marrazki bat bidali nuen. Handik puska batera, klima aldaketak goiburuetan zirauen inspiraziorik gabeko egun gris batean, irudi hori igorri nuen beste erremediorik gabe. Gauzak zer diren, marrazki hori izango da jendearen laudorio gehien bueltan

ekarri didanetako bat. Beste batzuetan, aldiz, badakizu irribarrea bermatuta daukazula. Strauss-Khan-en urkabera eskuentzako eta buruarentzako zuloz gain gerri-pareko zulo txikiago batekin marrazten dudanean, badakit biharamunean festa egongo dela tabernan. Bestalde, zorionez, krika-krikak eragin ditza-keten tirak ere antzematen ditut. Adibidez, lehen aipaturiko Chaban-Delbasi buruzko pare bat neuk eraman nituen zuzenean erredakziora faxez igorri beharrean, ederki nekie-



lako arantzatsuak zirela. Osterantzean, nire posizioa defendatzen eta zaintzen saiatzen naiz. Sarkozyri ez diot inolako maitasunik, eta egunero ebentu edo astakeria bat sortzen tematuta dagoen arren, ahalegintzen naiz egunero ez egurtzen. Hori egingo banu nire marrazkiak banalizatuko lirateke, eta nik nire sinesgarritasuna galduko nuke. Egunero ideia bakar bat besterik ez dut, bala bakar bat, eta ongi aukeratu behar dut nor jo.

Hauteskunde sasoian gaudenez, egin dezakezu kanpaina?

Oraingo kanpainan jokoan dagoenak ez nauenez bereziki kitzikatzen, kanpainari buruz marrazten dut kanpainarik egin gabe. Baina 2005ean, Europako konstituzioari buruzko erreferenduma zela eta, Frantziako editorialista ia guztiek baiezkoren aldeko kanpaina sutsua egin zuten. Nik alderantziz. Oso irrigarria zen *Sud Ouest*en gertatzen zena. Editorialak baiezkoa goستن zuen irtenbide argi eta inteligenteena zela azpimarratuz, eta nire marrazkiek baiezkoa neurritz kanpoko zentzugabekeria zela agertzen zuten.

Ahantzi behar ez dena da, egungo prentsa orokor eta nagusia ez dela gehiago iritzi prentsa, iritzi aniztasuna islatzen saiatzen den prentsa baizik. Horregatik, zure burua non kokatzen duzun jakin behar duzu etengabe. Nik arau batzuk betetzen dituen eta umore kode bat duen herrialde batean egiten dut lan. Horrek ez du justifikatzen egungo Frantziako prentsako marrazkia eskasa eta tristeia izatea oro har. Eskerrak *El País*-eko *El Roto* edo ingelesak fuerte dabilizan. Hori bai, ingelesek oso umore eskatologikoa darabilte, eta kazeta serioenean ere kaka eta pisa dira nagusi. Nik ezingo nuke hori sekula hemen marraztu. Nahi ala ez, nik Akitanian egiten dut lan, Montaignen herrian, eta Montaignek neurria du ezaugarri. Horrek asko markatzen du.

Frantziaren zilborra Paris izanik, aldapatsuagoa da errekonozimenduaren bidea Akitanian gelditzea erabakitzen duenarentzat?

Bordele ez da existitzen paristarrentzat. Bakoitzak bere herrian lan eginez bere herria biziarazi behar duen logikan errotu nintzen ni ere, eta hautu hori larrutik ordaindu dut



AZKEN HITZA

Mahomaren karikaturak

“Hastapenetik ikusi nuen zer zetorren. Jakin beharko litzateke Danimarkako egunkari horrek zergatik eta zertarako nahi zituen Mahomaren karikaturak, baina argi zegoen tximista erakartzen ari zirela. Marrazki batek, zilegitasuna izango badu, egoera batek justifikatu behar du. Nik asko marraztu dut burkari buruz, baina ez inor erasotzeko, gizartean pil-pilean zegoen eztabaidari erantzuteko baizik. Ez zait burutik pasatzen Mahoma edo beste inori buruz inolako motiborik gabe marraztea. Horrek ez du esan nahi krispazio handiko aroan bizi ez garenik. 1970ean, Cabu-k Mahoma karikaturizatu zuen, eta ez zen ezer pasa”.

hastapenetan. Ez bazaude Parisen, ez zara inor, etengabe gutxiesten zaituzte, eta hori oso mingarria da gaztea zarenean. Oso gaitza da ulertzea zergatik ez zaren paristar bat baino onartuagoa eta ezagunagoa, bera baino hobea izanik ere. Baina zurean segitzen baduzu, tantaka-tantaka iristen zaizkizu onarpena eta ospea. Goiz ala berant, talentua gailentzen da. Gainera ni borrokalaria naiz, eta ez dut beldurrik izan *Sud Ouest*ekoaz gain Paris-ko prentsa den legerik gabeko oihan horretan nire dohainak neurtzeko. Lan egin dut *Le Monde*-rentzat, *Libération*-entzat, edo *Télérama*-rentzat, eta gehienetan disgustura aritu banaiz ere, nor nintzela erakusteko balio izan dit. Behin hori eginik, haizea hartzera bidali ditut denak, ederki bainago *Sud Ouest*en, eta hemen dudak askatasunaren inbidiatan bizi baitira nire ofizioakide asko. 66 urte bete

berria naiz alta, eta garbi daukat hauteskunde kanpaina bukatzean utzi egingo dudala nire eguneroko marrazkia. Egunkariko arduradunei ozen esan diet: “Nire gutuziazko lanetan eta bestelako proiektuetan segituko dut, baina Sarkozyrekin batera erretiratzeko naiz!”. Bai, beti marraztuko dut baina bada garaia Damoclesen ezpata buru gainetik kentzeko.

Erretiratu aitzin aitorpen bat: erraza izan da zuretzat euskal gatazkari buruz marraztea?

Mingarria izan zait ETari buruz marraztea. Bi fase izan ditut. 1987ko Hipercor-eko atentatura arte ETarekiko sinpatian dantzatzen nuen eskumuturra. Beste anitz bezala, borroka noblea, zintzoa eta beharrezkoa iruditzen zitzaidan. Aitzitik, atentatu hura bihurgune erabakigarria izan zen niretzat. Indarkeriak ez ginderamatza inora sentitu nuen, gaiarekiko ikuspuntua erroto aldatu zitzaidan, eta ez dakit *Sud Ouest*en argitaratu ditudan marrazki batzuk hegoaldean argitaratuko nituzkeen. Onartzen dut marrazki batzuk oso barrutik eta oso gogorrak atera zitzaizkidala, baina ez pentsa ondo pasatzen nuenik marrazten. Atentatu bat zegoenero jota gelditzen nintzen, eta katalanek urratutako bidetik zer irabazi askoz probetxugarriagoa genuela sentitzen nuen. Ez da samurra bihotza hainbeste korapilatzen dizunari buruz marraztea. Horrexegatik marraztu nuen gustura baino gusturago kaputxa erantzi eta ETaren pintada ezabatzen zuen ETakidearen tira. Beste gauza askotarako bezala, hor ere damu naiz euskara ez ikasirik, marrazki horiek askoz eraginkorrak eta sinesgarriak izango baitziren euskaraz eginik. ■



Ohitura lagungarria ala alferrikako gainkarga?

Planto egin dute Ipar Euskal Herriko gurasoek: hamabost egunez, eskolan seme-alabei etxerako agintzen dieten lanik ez egitera deitu du apirilean Frantziako Estatuko guraso federazio handienak (FCPE). Ez da eztabaida berria, Nafarroako Arartekoak gaia mahairatu zuen iazko ikasturtean, gurasoen kexek bultzatuta.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Argazkia: Cayusa / CC

ANTZEKOAK DIRA guraso batzuen eta besteen argudioak: ez dago frogatuta etxerako lanek onurarik dakartzatenik haurren ikasketa prozesuan; praktikan –seme-alaba txikiekin batez ere–, gurasoek beren gain hartzen dituzte lan horiek eta ez dira ikasleen aurrerapenen isla, gurasoen emaitza baizik, “laguntzen” duten gurasoen eta ez dutenen umeen artean ezberdintasunak sortuz; eguna ikastetxean eman ostean nekatuta iristen dira haurrak eta beraien garapenerako garrantzitsuak diren bestelako ekintzetarako, aisialdirako eta senideekin egoteko duten denbora jaten dute. Nafarroako Hezkuntza Batzordeak Arartekoaren eskariz iaz kaleratutako *Eskolako lanak* txostenaren arabera, 11-12 urterekin egunero batez beste ordubete eta 36 minutu eskaintzen diete ikasleek etxerako lanei, eta 14-15 urterekin, kasik bi ordu.

Eskolako lanen bolumena kritika nagusietakoa izaten baita sarri: ariketa gehiegi agintzen zaizkiela ikasleei, denbora asko eskatzen dutenak. Baina kopurutik harago, eredia bera jartzen du zalantzan hainbatek, oroimena eta memoria lantzeko errepikapenean oinarritutako ariketa zerrenda luzea baino ez direlakoan. Horregatik, lan moldea aldatu egin dute ikastetxe batzuetan: astebeterako ikasleek egin beharrekoak adosten dira, eta lan horiek eskola-orduetan gauzatu ditzaten egiten da plangintza –bukatzerik ez duenak, etxean amaitu behar ditu egitekoak, baina ahal dela ikastorduen barruan burutzea da abiapuntua–. Ez al dira, bada, nahikoa ikasleek eskolan sartzen dituzten orduak, bertako eginbeharrak bertan burutzeko?

Ezezkua da irakasle ugariren erantzuna: curriculumaren eduki guztiak jorratzeko –azalpenak eman eta testu-liburuetako ariketak bete–, ordu gutxiegi dituztela kexu dira. Beharraz gain, etxerako lanak onuragarri direla



**Egunero
ordubete eta 36
minutu eskaintzen
diete 11-12 urteko
haur nafarrek
etxerako lanei**

defendatzen dute batzuek: ikasitakoa sendotzeko laguntza gehigarria da, eskolan jasotakoa landu eta barneratzeko modua; lanak planifikatzen eta antolatzen ikasteko baliagarria da; autonomia, independentzia, ardura, autodisziplineta eta ikasketa ohiturak bultzatzen dituzte. Areago, hainbatek dio gurasoek ez dutela benetan inplikatu nahi seme-alaben hezkuntzan, eta hortik datorrela eskolako lanen kontrako iritzia. Baina eskolako lanek izan behar al dute gurasoak seme-alaben hezkuntzan inplikatzeko modua?

Kontua da zein neurritan egiten dituzten haurrek etxerako lanak eta zein neurritan haien gurasoek, eta zenbat eta zein ereduren arabera diren ariketak. Gainera, diziplina eta autonomia bezalako baloreak bestelako jardueren bidez ere barneratu daitezke, baina komunikatzaile litzateke neurtzea zenbat denbora bideratzen den balore horiek indartzera eta zenbat eskaintzen zaion haurraren garapen integralean garrantzitsuak diren bestelako baloreei. “Guk haur osoak nahi ditugu, sozialki, fisikoki eta artistikoki garatuko direnak, eta erlaxatzeko eta ume izateko ere denbora izango dutenak”, dio Alfie Kohn irakasle estatubatuarak. 7 eta 11 urteko bi umeren aitak *The homework myth* (*Eskolako lanen mitoa*, 2007) liburuan dio eskolako lanak onurarik gabeko ahallegin huts bilakatu direla eta ariketa horiek umeengan sortzen duten interes faltak eskolarekiko eta orokorrean ikastearekiko jarrera ezkorra eragin dezakeela: “Etxerako lanak dira haurraren jakin-mina amartatzeko arrazoi nagusia”. Bere ustez, azken muturrean norbera baino ez da gai norbere burua motibatuzko: “Gauzak ulertzeko umeak berez duen nahia loratzeko, sare curricular eta giro aproposa sortzea da egin dezakeguna, eskolan eta familian”. ■



• Ernesto Alonso, Malvinetako gudari ohia •

«Inperialismoari eman zion aukera Malvinetako gerrak»

Ernesto Alonso Malvina Uharteetako gudari ohia da, 19 urte zituela Argentinako armadak hara behartuta. Gerra hartatik 30 urte bete direnean, diktadurak hartu zuen erabakiaren gaineko berrirakurketa egin du CECIM (Centro de ExCombatientes de las Islas Malvinas) erakundeko kideak: zergatik deitu zen gerra, nortzuk diren “Malvinetako heroiak”, eta bertan gertatu ziren tortura eta hilketak. Uhartearen subiranotasuna aldarrikatzeko bide diplomatiko guztiak ikusten ditu egoki eta itxaropentsua iruditzen zaio Latinoamerikak jarrera bateratu izana.

GORKA BERASATEGI

Argazkiak: CECIM

Nortzuk osatzen duzue CECIM erakundea?

Gerraren esperientzia bizi ondoren, elkartzeko beharra sentitu genuen askok. Gu mutikoak ginen, 19-20 urte genituen eta Malvinetan geundela etxeokak genituen gogoan, itzuleran ikusiko genituenak, jango genuena... Baina okerrean iristeko zegoen. Azkeneko egunak aurrez aurreko borrokaldiak izan ziren. Nolabait, gerraren bidez sartu gara gure herriaren bizitza politikora. Demokraziaren hasierarekin, antolatzeko eta parte hartzeko piztu zen irrikarekin sortu genuen guk ere gure taldea. Horrela finkatu genituen gure aldarrikapenak: gudari ohien berreskuratze fisiko eta psikikoa, Malvinetan gertatutakoaren egia azaleratzea eta inperialismoak kendu dizkigun lurraldeen jabe egitea.

Gudari ohien berreskuratze fisiko-psikikoa eta egia azaleratzea, zein neurritan bete dira?

Lan handia ari gara egiten. Dela gudari ohien birgizarteratzean edo diru-laguntzak lortzen, pentsioak adibidez. Lehenengo hamar urteak oso gogorrak izan ziren zentzu horretan. Inolako estatu politika eta laguntzarik gabe egon gara. Orain osasun zerbitzua eskuratzea lortu dugu eta lan arloan ere aurrerapauso handiak eman ditugu. Baina, egoera hori duela hamar urte izan behar genuen eta tamalez bidean lagun asko gelditu dira. Behin hori lortuta, Malvinetan gertatu zenaren egia azaleratzeko saiakeran

“Guk bi etsai izan genituen: ingelesak eta gure nagusiak. Militarrek eurek eragiten zituzten hildakoak gure taldeetan. Hori da orain Gobernuak argitara eman duen txosten sekretu batek dioena”

jarri ditugu indarrak. Guk bi etsai izan genituen: ingelesak eta gure nagusiak. Militarrek eurek eragiten zituzten hildakoak gure taldeetan. Malvinetako gerrari buruz zuten ikusmoldea antolatu gabea zen, arduragabea, irabazteko aukerarik gabekoa... Hori da orain Gobernuak argitara eman duen txosten sekretu batek dioena. *Rattenbach* txostena, militarrek gerra ostean idatzitakoa.

Gerran gertatu zirenak argitara ari dira ateratzen orain?

Pixkanaka bide horretan ari gara aurrera. Egun prozesu judizialean gaude murgilduta.

2007an aurkeztu genuen Malvinetan jasan genituen torturen kontrako salaketa. Orain Auzitegi Gorenak erabaki behar du han jazotakoak gizateriaren kontrako krimenak diren ala ez. Hala izendatuko balitu, erantzuleek epaiketa bati egin beharko liokete aurre, diktadurako gainontzeko krimenekin gertatzen ari den moduan. Estatuako fiskala ere gure eskarira batu da.

Malvinetako gerra bi hariko korapiloa da. Argentinaren aldarrikapen historikoa batetik eta estatu terrorista batek bultzatutako guda bestetik. Zein da zuen irakurketa?

Guk ez dugu gerra aldarrikatzen, ez dugu diktaduraren erabakia babesten. Erabaki horrek Malvinetatik urrundu gintuen eta inperialismoari eman zion aukera Atlantiko-



ko hegoaldean finkatzeko. 1982an 45 Royal-Marine besterik ez zeuden, gaur NATOK base militarra du 2.500 militarrekin. 85ean eraiki zuten, gerra amaitu eta gutxira. Gainera, diktadurak ez zuen inolako sinesgarritasunik, ez baitzuten gure herrialdeko subiranotasuna errespetatu. Errepresio sistema krudela garatu zuen, genozidioa burutu zuen Argentinaren aurka. Herrialdeko ekoizpen baliabideak suntsitu zituen, mugaz kanpoko enpresa handien pagotxarako! Malvinetara joateko aitzakia erabili zuten gure gizartearen muina ukitu eta boterean luzeago iraun ahal izateko. Noski, guretzako oso gai garrantzitsua da Malvina Uharteena. Orduan 150 urte generamatzan lurralde hori aldarrikatzen eta gizartearen zati bat militarren alde jarri zen.

Nolako tratuak salatu dituzue zuen gaineko ardurak zituztenen kontra?

Kontuan izan behar da Malvinetara joan ziren indar armatuak diktadurako berberak direla. Zerrenda errebasatuz gero, gizateriaren aurkako krimenen erantzule gisa prozesatuak eta epaituak izaten ari diren izen asko aurkituko dituzu. Pernía, Astiz, "Tigre" Acosta, Rolon, Carrizo Salvadores, heriotza hegaldietako pilotuak, eta abar. Horiek guztiak izan ziren Malvinetan eta haiek torturatu gintuzten. Gu gazteak ginen! Gazteak eta zibilak! Derrigorrezko zerbitzu militarra sartu gintuzten berriz heziak izateko, doktrinatuak, alineatuak. Gizarte ordenatu bat izateko. Txukuna eta esanekoa. Soldadu batek aginduren bati uko egiten bazion edo koldarkeriagatik zigorren bat baldin bazegokion, horretarako arauak zeuden baina ez ziren erabili. Zigor zuzenak ezartzen ziren. Batez ere, gosearekin lotutako kasuak izaten ziren. Goserik ez izatea agindua zen! Eta hotza sentitzen bazenuen psikologikoa zen. Beraz, ihes egin behar izaten genuen deposituetatik zerbait lapurtzera edo ardiren bat akabatzen.

Ernesto Alonso, bakarrik eta CECIM erakundeko kideekin. Gudari ohien berreskuratze fisiko eta psikikoa, Malvinetan gertatutakoaren egia azalratzea eta inperialismoak kendu dizkieten lurraldeen jabe egitea dute helburu.

Torturak era guztietakoak ziren. Irudikatu ditzakezun guztiak. "Estakeoak" askotan. "Estakeoa" zera da, gorputz-adarretatik lau makiletara erdi biluzik lotzen zintuzten, buruz gora, batzuetan bonbak jaurtitzen ari zitzaizkigun bitartean, beste batzuetan harria ari zuela ere bai. Kanpainako telefonoekin egindako deskarga elektrikoak, bortizkeria sexuala... Gosez hiltzen utzi zituztenak ere bai. Soldadu jakin bati janaririk ez emateko agintzen zuten. Soldaduetako asko eltze kopuru eskasarekin abiatu ziren haien etxeetatik Malvinetara eta gero han oso egoera ahulean zeuden. Ur izoztu putzuetan sartzen zintuzten, hainbatek anputazioak izan zituzten horren ondorioz, fusilamendu simulazioak, tortura psikologikoa... Denetik. Ondoren, errepresiozko asko gerrako heroi gisa izan zen hartua.

Leopoldo Galtieri diktadurako presidentek famatu egin diren hitzak bota zituen Maiatzeko Plazan: "Etorri nahi badute, etor daitezela. Borroka egingo dugu!". Nola izan ziren ondorengo orduak?

Argentina hegoaldera eramango gintuztela esan ziguten, hegoaldeko soldaduak ordezkatzera. Izan ere, klima hotzera hobeto egokituak zeudenez uharteetara haiek joango zirela esan ziguten hasiera batean. Patagoniara iritsi arte ez ziguten jakinarazi Malvinetara gu joango ginela. Militarren hasierako asmoa uharteak zapaldu eta denbora gutxira ospa egitea zen baina korapilatu egin ziren. Ez zuten uste britainiarrak gerrara joango zirenik. Margaret Thatcherri ezin hobeto etorri zitzaion, ordea, gerraren aitzakia; herrialdean zuen krisia estali eta berraukeratua izan zen. Eta begira orain! Antzeko krisi batean daude Erresuma Batuan, baina Argentinan ez dago Galtieri bat.

Zuek Malvinetara iritsi eta egun batzuk pasa ziren britainiarrak iritsi arte.

Gu apirilaren 12 eta 13 artean iritsi ginen eta

gure kasuan Puerto Argentinotik hurbil desti-
natu gintuzten, herria defendatzeko. Niri
London mendian egotea egokitu zitzaidan.
Han egon ginen ekainaren 11ra arte. Egun
horretan eraso ziguten parakaidista britainia-
rrek. Aurretik, ordea, aireko eta itsasoko era-
soak ere jaso genituen. *Increscendo* izan zen.
Gure errejimentuak izan zituen Malvinetan
hildako gehien, 36 hildako: 35 soldadu eta
ofizial bat.

Gerra amaitu ostean Campo de Mayoko zentro militarra eraman zintuzteten.

Campo de Mayora gizentzeko eraman gin-
tuzten. Zazpi edo zortzi aldiz eman ziguten
jaten egunero. Bainatu gintuzten, arropa gar-
bia eman eta inkesta segida bat antolatuta
zuten. Orduan hasi zitzaizkigun ohartarazten
ez genuela gertatutakoari buruz hitz egin
behar. Isiltasunera behartzen saiatu ziren.
Orduan haiek ziren gure bizitzaren jaun eta
jabe. Egoera horretan hasi ginen gudari
ohien artean elkartzeko eta hitz egiten. Hori
egiterik ezin izan zuen gaizki pasa zuen
gero. Soldadu ohi askok egin du bere buruaz
beste. Guk gure kontakizuna eta gure egia
eraiki genuen.

Nola gogoratzen duzu Campo de Mayotik irten eta etxera egin zenuten itzulera?

Ezkutuan ekarri gintuzten, gure kasuan, La
Platara. Autobusetan, gauez, leihoak tapatuta.
Campo de Mayon egun gehiagorik gelditzea
nahi zuten baina egoera jasangaitza zen.
Ezkutuan ekarri gintuzten eta izugarria izan
zen. Ez zuten hildakoen berri emateko ardu-
rarik hartu. Familiek guri galdetzen ziguten
haien senideak non zeuden, zer pasa zitzaien,
ikusi al genituen. Militarrek ez zuten inolako
erantzunik eskaini eta guk esan genien gene-
kiena, genekien neurrian.

Biztanle zibilez gain militarrek ere badira Malvinetan.

Garrantzi geopolitikoa

"Malvina Uharteez ari garenean, ez dira Malvinetako bi irlak bakarrik. Hego-ekialdean Sandwich eta Hegoaldeko Georgia irlak daude. Atlantikoaren hegoaldeko sektorea kontuan hartzen badugu, Antartidan duen proiektzio geografikoarekin, guztira 2 milioi km² dira, ia beste Argentina oso bat. Malvinetan petrolio, arrantza, mineralak eta ur gez erreserba handiak daude. Uharte horretan 3.000 biztanle daude. Horietatik, 1.000 dira irlan jaiotakoak. Gainontzekoak ez dira britainiar gisa onartuak. Txiletarrak dira, perutarrek, argentinarrak... Biztanleria Santa Helena uhartetik joandakoek osatzen dute eta britainiar herritartasuna dutenak gerra ostean eskuratu zuten".

Oso kezkarria da hori. 3.000 eta 4.000 sol-
dadu artean har ditzakeen basea dago. Uhar-
teak azken teknologia militarren probarako
lurralde bihurtu dituzte. Erresuma Batuak
zabalik dituen gerra eszenatokitara joan
aurretik soldadu asko pasatzen da Malvina
Uhartetatik. Arma nuklearrak daude eta
ohikoa da urpe-ontzi nuklearren presentzia.
Malvinetako enfrentamendua Gerra Hotza-
ren garaian izan zen, armamentu nuklearra
eraman zen bertara eta gero dispositibo
hura ez zen desaktibatu. Horrek guztiak
kezka piztu du Latinoamerikako gainontze-
ko herrialdeetan ere eta ulertzen hasiak dira
ez dela Argentinari dagokion kausa baka-
rrik, eskualde osoari eragiten diona baizik.
Latinoamerikako base militarren mapa ikus-
ten baduzu, baliabide naturalen maparekin
dator bat.

Erresuma Batuek negoziatuko dutela uste duzu?

Erresuma Batuen jarrera eutsi ezina da.
Eremu kolonial hori mantendu nahi du eta
entzungor egin die Nazio Batuen 40 ebazpe-
ni. Correak esan zuen: "Trudikatu ezazue
Nazio Batuen ebazpen bat soilik beteko ez
lukeen hainbat herrialderi zer gertatuko
litzaiekeen". Nik uste dut diplomaziaren eta
nazioarteko zuzenbidearen aldetik jarraitu
behar dugula.

Atentzioa eman dit: zuetako asko itzuli zarete noizbait Malvinetara.

Denok ez dugu horretarako gogoia izaten,
oso kontu pertsonala da. Baina bai, askok
bidaia dugu berriz uharteetara. Nik bi
aldiz egin dut jada. Niretzat ez da zerbait
ixteko bidaia, alderantziz baizik. Uste dut
erne jarraitu behar dugula gaia. Joaten naize-
nean zein aldaketa egon diren
ikustera noa, base militarra non
kokatu zuten ikustera, nolako
mugimendua dagoen... Bidaia
politikoa da. ■



gametxo
HOTELA



Gametxo Auzoa • Ibarrangelu, Bizkaia • Tel.: 94 627 77 10 • www.hotelgametxo.com

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Joxemari Carrere

ANTZERKILARIA

Ez dago “Deus ex Machina”-rik

Bizi dugun garaia, ekonomiaren zein merkatuen berrantolamenduari dagokionez, kaltegarria izaten ari da oso kulturarentzat ere. Antzerkigintza zuzen-zuzenean ari da jasaten neoliberalismoaren neurri ekonomiko berrien eraso. Talde asko desagertzen ari da, aktore ugari egoera ekonomiko larrian dago, egitarauen desagertzea edo murrizketa nabarmenak, egindako lanak ordaindu gabeak... Azken Nazioarteko Antzerkiaren Egunean horren salaketa egin zuen publikoki Euskal Aktoreen Batasunak. Faltan sentitu nuen, ordea, handik bi egunetara deituta zegoen greba orokorrarekiko atxikimendua edo aipamena. Aktoreen ahotik salatzea Lan Erreformak eta gainontzeko neurri ekonomikoak antzerkigintzari egindako kaltea, egun ematen ari diren haserretze eta oldartze mugimenduekin bat etortzea litzateke, bizi dugun jendartearen arazoen partaide gisa azalduz.

Antzerkiak historian barrena boterearekin izan duen harremana gatazkatsua izan da. Alde batetik kritika zorrotzak jaurti izan dizkiolako agintaritzari; baina bestalde, biziraun ahal izateko, askotan ez diolako muzinik egin kritikaketak botere horren soldata pean egoteari. Baina, orokorrean, aktoreen egoera ekonomikoa kaxkarra izan da beti. Egun ere, asko eta



DANI BLANCO



Antzerkia salbatzeko,
kalera irteten ari diren
milaka haserretuekin
batera, ematen ari diren
eraso ekonomiko-sozialei
aurre egin behar zaie.

Antzerkigintzak
aldarrikatu behar du
bere balio soziala



askorentzat ez da aldatu hori. Dena dela, garaiotan administrazioarekiko bizi dugun dependentzia ez da inoiz eman, administrazio publikoa baita kontratatzaile nagusia. Gehienetan antzezlan baten bideragarritasuna administrazio horren irizpideen pean egon ohi da, ez bakarrik ikuskarienez eskaini daitezkeen diru laguntzen bidez, baina baita ere, antzezlan bat erakusteko aukera izan ahal izateko. Dependentzia honek behin baino gehiagotan baldintzatu izan du antzerki talde batek ekoitziko duen ikuskaria, bi hautuen artean bere burua ikusten duelarik, alegia, administrazioari “zuzena” irudituko zaion ikuskaria egitea, eta horrela beharrezko laguntzentzat oztoporik ez izan; edo, norberak nahi duena eginez, bazter bideetan ibili.

Zerk salbatuko du antzerkia garai hauean? *Deus ex Machina* ez da agertuko zeruan. Antzerkia salbatzeko, kalera irteten ari diren milaka haserretuekin batera, ematen ari diren eraso ekonomiko-sozialei aurre egin behar zaie. Antzerkigintzak aldarrikatu behar du bere balio soziala. Antzerkigintzari heldu zaio ordua eszenatokian bizitzaren nondik norakoak agertzeaz gain, bizitza igarotzen ari den lekuan egoteko. Eszenatokia elikatzeko. Mundu berri bat aldarrikatzeko. ■



TXANDAN

Andoni Mujika



Jaso dugun hezkuntza ereduak arrasto kaltegarri handiak utzi dizkigu. Zorritzarez ez da lehenaldiko kontua. Honen kalteak norberaren azalaren barruan eta kanpoan ikus daitezke. Barrura begira, sortu duen gaitz handienetakoa identitatearen odolustea da, eta beraz, ziurtasun eza, beldurra eta oinaze pertsonala. Kanpora begira, harremanen kalitatean izan du eragin zuzena; barruko jatorrizko kalte pertsonal hori gaiztotuz. Norbanakoen benetako gogoak estalita egonik, artikulatzen diren harreman logikak ez dira oinarritzen zintzotasunean. Giro toxikoak erditzen dira

Lehentasun zerrenda

gizaki ahulen eta gizaki perbertsoen topaketatik. Hau da, jaso dugun hezkuntza kaltegarriaren ondorio dramatikoena menperatu/menperatzaile dinamika da. Ez dakigu garbi zein den ahularen egiazko gogo eta marrazoaren ezkutuko helburua. Honi beste zailtasun bat eransten zaio: menperatzaileak edozein giroan agertzen direla eta mila moztaroz jantzi. Urgentzia gorria du hezkuntzaren eraldaketak. Hezkuntza txarraren autoretzatik oso eragile gutxi libratzen gara. Hurrengo urtetan, Euskal Herriak benetako beste erronka bat du lehentasun zerrendan (baina goialdean). ■



Iñaki Odriozola

IRAKASLEA

Oinarrizko errentagarritasuna

Bi lagun ezkondu zaizkidala esaten badizuet, norbaitek galde dezake: “Eta zer? Jende asko ezkontzen da”. Baina, gure bi lagun hauek 55 urte inguru dutela esan, eta hogeita bost urte elkarrekin bizitzen badaramatzatela, eta ezkontzetan sinesten ez duten ezkertiar horietakoak direla, bada, jakina, norbait horrek galde dezake: “Zertan ari dira horiek?”.

Horixe esan nien neuk ere: “Zertan ari zarete?”. Argumentua ekonomikoa dela erantzun zidaten. Ezkonduz gero —ez zuten lagunarteko bazkaririk ere egin—, itxuraz, dirulaguntzak jasotzen ei dira, errenta aitorpenean gehiago kobratzen ei da, eta bietako bat hilez gero ere, besteak herentzia osoa eta alarguntasun-pentsioa jasoko omen.

Gure ustezko “ongizate” jendartetxo honi begira jarri naiz (oraindik kendu ez digutena-ri, esan nahi dut), eta honek izan duen garapen irrazionalaz hausnartu. Esaterako, lehen-go bikoteetan, gizonak lan egiten zuenez, emakumea diru iturririk gabe gelditzen zen hau hiltzean. Horregatik, alarguntasun-pentsioak bazuen zentzurik. Gaur, biak lan egiten dutenean, ba al du zentzurik laguntza horrek?

Beste bat, erretiroa hartu duen nagusi bati, pensio txikia ematen diote, eta gero, trenean joateko tiketa merkeago jarri, telefonikako bonoak egokitzen, deiak merkeagoak izan ditzan, eta beste diru sarreraren bat lortuaz,



DANI BLANCO

seme alaben laguntzaz edo, konpontzen du arazoa.

Hirugarrena, ikasle bat unibertsitatara doanean, beka sistema zabala omen dago, garraioak ordaintzeko batez ere, baina giza-gaixoak benetan nahiko lukeena, gurasoen etxetik irtetzea, eta lagunaren batekin bizi, ezin du egin.

Bukatzeko, lanik gabe dagoen bati, dagokiona bukatzen zaionean, dirulaguntza txikiago bat ematen diote, baina lor ditzake etxea alokatzeko laguntza, alokairu horiek ordaintzekoa, edo oinarrizkoak diren baldintzak betetzeko laguntzak.

Beste mila laguntza dauzkagu udal eta aldundietan ere, bai hortzak konpontzeko, bai ikasketak egiteko, bai etxean nagusiak zaintzearen. Batzuek —“argi” dabilzanak—, eskatzen dituzte; gehienok ez dugu jakin ere egiten. Nire galdera da, hau guztia ez litzateke konponduko, gizarte zerbitzu egokiak jartzeaz gain, hemen bizi garen gizon-emakume bakoitzari “oinarrizko soldata” —duina— emango balio estatuak, behar-rrak ase ditzan? Ziur nago hainbeste laguntza eskas eta petatxu ematea baino, askoz ere merkeagoa, errentagarriagoa izango litzatekeela jendartearentzat, askoz ere sinpleagoa antolaketarako, eta askoz ere garbiagoa ziri-rik ez sartzeko. Eta lasaigarriagoa guztiontzat. Hain-beste eskatzea ote al da? ■



Gure ustezko

‘ongizate’

jendartetxo honi

begira jarri naiz,

eta honek izan

duen garapen

irrazionalaz

hausnartu



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



gora *Sautrela*! Horiek izan ziren Hasier Etxeberriak agurtzat bota zituen hondar hitzak, Ramon Saizarbitoria parez pare zuela elkarriketa mamitsu bezain atsegina burutu ondoren. Plazer bat adimenerako. *Sautrela* ez da hil, akabatu dute. Ez pelotazoka, ez dituzte behar izan lehergailua soberan duten fusilak desagertarazteko, aski izan dute zuen elikadura eskasa kentzea letren erresuma eraisteko, gosez hiltzen uzteko. Ez zuten *Sautrela* beharrezkoa erdaldun agintari arrotzek, ezagutzen ez gaituzten horientzat gutxi batzuen apeta besterik ez zen *Sautrela*, ondorio

**Sautrela
hil da,**

deserosorik ekarriko ez liekeen erabakia hartzeko ez dute inongo lotsarik izan. Bazekiten jakin, ez zutela aurkako manifestarik jasan beharko, ez zutela beren informazioaren aldeko pankartaren atzeko mundu errabiatuaren desfilerik filmatu beharko, euskaldungoa jendetasunaren izenean guztia irensteko sortua dela. Ez diogu Soroazabalen musikaz minutuko isilunerik eskainiko, ezta ondorengo txalo zaparradarik joko. Euskara ez da UEFA, bere literatura ez da futbola, Alberto Surio ez da Rodolfo Ares, ETB ez da Ertzaintza, euskal idazleak ez dira Athletica. ■



BERTSO BERRIAK

Miren Amuriza

Borobilak



I

Gaurkoan gauza borobiletaz
kantatu nahi nizueke,
unibertsoan zintzilik daude
handienak erortzeke,
planeta gori, eguzki gorri
edota ilargi bete,
forma bera ei daukate
ondo ezagutu arte. (bis)
Zeren denborak ikuspegia
gutziz aldatu lezake,
zuek mundua borobila den
horren ziur al zaudete?

III

Urrats batean jolas zelaitik
gudu zelaia igarota:
alde batean gazte koadrila
ta bestean ertzain tropa,
gazteenganantz jaurti dituzte
ehunka gomazko pilota,
berdin zaie nora bota,
kalteak ez die inportat. (bis)
Horrexegatik egiten dugu
uniformedunen kontra,
pilotakada hoiien atzean
joko zikina dago ta.

V

Guztiok geunden agintarien
erantzunari begira,
Varela eta Ares agertu
ziren ohi duten neurrira,
hainbat lekukok esandakoa
tinko zuten erretira,
sokari tira ta tira
eurek nahi zuten tokira. (bis)
Haien gezurak hitz finak hitz fin
eta dizdirak dizdira,
pilotakadak bezain borobil
eta mingarriak dira.

II

Telazko poltsa baten gordetzen
gendun kanika dozena,
tenis pilota berde-berdea
teilatura joan zena,
auzokoaren baloi berria
zurietan-zuriena...
Jolastokian barrena,
zenbat ume, hainbat dema. (bis).
Irriak eman ta bueltan jaso
hortxe laburtzen zen dena;
jolastea da inondik ere
ekintza borobilen.

IV

Hilabeteen marra gorriak
bi aldiz zituzten pasa,
mutil bat larri utziz Gasteizen
ireki zen trumoi kaxa,
gero heldu zen Athletizale
baten azkenengo arnasa,
ertzainen pilota jasa
ulertzea ez da erraza. (bis)
Nor da konorte bako gazte bat
porraz jotzeko kapaza?
Okerrena da beraientzako
horixe dela jolasa.

VI

Agintariak berba lauekin
egindako teatroa,
gezur borobil baten dizdira,
pilotaren zartakoa...
Denak batuta sor dezaketen
mina da sekulakoa.
Aurki dezagun gakoa
eraldaketa. (bis)
Zeren nahiz eta planeta izan
esferak bezalakoa,
oraindik ere gizarte hau da
piramide formakoa.



DOINUA: Gregario edo laguntzaile naiz.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko kaiera

Musika

Inork ordainduko al du nire diskoaren truke?

Dendara joan, diskoei begiratu bat eman, gustukoa aukeratu eta dendariari ordaintzea. Guztiz normala dirudien ekintza hori pertsona gutxi batzuek mantentzen duten erritual zaharkitua bihurtzen ari da urteak pasa ahala. Iraultza iritsi da musika salmentara eta liderrak Internet du izena. Baina, ba al dago modurik entzuleek diskoen truke zerbait ordaintzeko?

JAGOBA SALVADOR

ZALE ERROMANTIKOEN, melomano amorratuen, *frikien* esku geratzen ari da, nolabait esatearren, diskoak erostea. Disko dendeaz hitz egin beharrean, merkatalgune handiez hitz egin beharko genuke gainera, musika denda txikiak desagertzeko zorian dauden espezieak baitira gaur egun.

Egoera horretara eraman gaituen bilakaera azaltzea ez da erraza, baina gauza bat behin-

tzat argi dago; aldaketaren ardatza Interneten leherketa izan da. Eta, aldaketa diogu, ez arazo, musika industriak sarea etengabe demonizatzeko joera izan duen arren. Internet etsai moduan ipintzeko saiakera hori industriaren akats handienetakoa da, ez baitute ulertu sarea, azken finean, jendea dela, audientzia, denok maila berean gauden gunea. “Disko industria krisian da jendeak



EL ORNITORRINCO JUSTICIERO

legez kanpo musika jaisten duelako Internet bidez”. Ideia hori behin eta berriro errepikatu digute, burmuinean txertatu eta errudun sentiarazi nahian. “Diskoak erosi behar ditugu, musika eta sortzaileak salbatzeko” esaten digute. Kulturaren salbazioa predikatzen duten arren, industriaren, interesen, diruaren salbazioa nahi dute. Haiek sortutako salmenta eredia nahi dute, ia konpetentziarik gabea, urteetan zehar gutxi batzuen tartean banatu duten mauka.

Aldaketa teknologikoak eragin dio industriari, baina ez musikaren osasunari. Sarea agertu denetik, inoiz baino talde eta proposamen gehiago daude, askoz eskaintza zabalagoa, eta hori da diskoetxe handiek nahi ez dutena. Antza denez, Internet uste zutena baino askoz gehiago jendarteratu zen pasa den hamarkadan eta leherketa iritsi zenean, ez zuten jakin zer egin. Eta ez dakite oraindik ere. Baina 60 urte inguru dituen salmenta eredia betiko mantendu nahi izateak ez du zentzurik.

Testuinguru berria ulertu ezinik, iraganean errotutako enpresariak ez dute kulturaren alorrean inoiz gertatu den elementu iraultzaileena aprobetxatzeko gaitasunik izan, oraingoz behintzat. Oraingoz, izan ere sareko deskargak gure artean zabaldurik zirenetik jada hamar urte inguru pasa badira ere, ez da ahaztu behar Internet oraindik gauza nahiko berria dela, eta hasi besterik ez dela egin iraultza.

Dena den, azken urteetan musikaren industriak behin eta berriro sinestarazi nahi izan digu sareak sortzaileen eta kreatibitatearen aurka egiten duela eta ezin dute okerrago egon. Internet izugarritzko erreminta da musika hedapenerako, interakzioarako, ezagutarako... Lehen diskoetxe baten babesia ezinbestekoa zen. Orain, musikari hasiberri edo ez profesionalek badute aukera aurrera egiteko.

Audientziarekiko kontaktu zuzena, independentzia, erabiltzaileen botea dakar iraultza honek. Horren aurrean, diskoetxeen papera birplanteatzen da, jada ez baitira ezinbestekoak. Bitartekari lana sareak egiten du orain eta horregatik zentsuratu nahi du industriak. Musikarentzat ordea, zaila da hau baina konpletoagoa izan litekeen erremintarik aurkitzen. Mugimendu askea, desinteresatua, mugarik gabea eta oraindik aukera ugari eskainiko dituen Internet eta industriari komeni zaio lehenbailehen hori onartzea, iraultza hau atzera bueltarik gabea baita.

**Internetek gauza asko erraztu
dizkie musikariei, baina era berean,
diru galerarik izan gabe disko
fisiko bat ateratzea gutxi batzuen
esku dago**

**Berrikuntza garaia dela urteetan
entzuten ari garen kontua da,
baina saiakera ugariren zurrumbilo
honetan, norabide argirik gabe
jarraitzen du musikaren
produkzioak**

Euskarriaren garrantzia

Sareak gauza txarrak ere ekarri ditu ordea. Zerbait doakoa izateak, azkenean, balioa kentzen dio eta ohiturak aldatzearekin, diskoak erostea gutizia balitz bezala ikustera iritsi da asko. Internetek eskaintzen digu musika sarean ipintzeko edota deskargatzeko aukera, baina arteak behar du euskarri fisiko propio bat, pertsonalitate gabeko artxi- bo bat gehiago izan beharrean. Presente izan behar den gauza da hori, bai sortzaile eta bai kontsumitzaile bezala.

Datorrena beraz, ez da arrosaz beterikoa bidea izango, batez ere euskarri fisikorako grabaketez hitz egiten badugu. Internetek ezagutarazteko eta hedatzeko aukera paregabea eskaintzen badigu ere, musikariak ekimen propioaren bidez lan fisikoak finantzatzeko irtenbide egonkorrik ez dute aurkitu oraingoz. Garai digital hauetan, badirudi disko bat edozeinek egin dezakeela, gauza erraza dela, musika demokratizatu dela, salbatu dela azkenik. Neurri handi batean hala da, baina gaur egun diru galerarik izan gabe disko fisiko bat ateratzea gutxi batzuen esku dago.

Autoekoizpena gauza positiboz beteta dago, baina era berean arriskua dakar artista- rentzat. Gehigarriak, gauza berriak eskaintze- ra behartzen ditu sortzaileak, bai salmenta ereduari dagokionean, bai formatuan... Azken finean artistak dirua galdu gabe beren sorkuntza plazaratzea lortzeko formulen bila dabilta, soilik bizirauteko bideen bila, askok ulertu baitute jada musika ezin dela negozio moduan ulertu. Dirua ez galtzeko bideak dira, ez negozio estrategiak. Sortzaile independenteek badakite aurrera egiteko bidea zuzenekoak direla, egiteko gai direna ikusleari zuzenean eskaintzea da musikariaren funtsa, esentzia, pertsonen arimara benetan iristeko bidea. Baina kontzertuak emateko, diskoa eduki behar...

Berrikuntza garaia dela urteetan entzuten ari garen kontua da, baina saiakera ugariren zurrumbilo honetan, norabide argirik gabe jarraitzen du musikaren produkzioak.

Motibazio ezberdinak

Nahaste berraste horren barruan, sortzaileek beraien bideari ekin diote, bakoitza bere pentsamendu eta helburuekin.

Giorgio Bassmatti kantautore donostiar- rak esaterako, apustu berezi bezain umila egin du *Canciones para un duelo sin espadas* lana-

rekin. Ez du Interneten ere eskegi. “Egia esan, nire helburua ez da jendearengana iristea izan, hori gogaikarria da. Ezaguna izateak ez ditu buruhausteak besterik ekartzen. Txikia izatea gustatzen zait. Nahi dudana egitea, askea izatea”, dio Bassmattik. Etxean bertan grabatuta, 40 ale baino ez zituen jarri salgai 3 eurotan, MiniCD formatuan eta bere webgunearen bidez eskaerak jaso zituen; bakoitzari ale pertsonalizatu eta bereziak bidali zion. “Hasieran ez nuen publikatu nahi, Thee Brandy Hips taldeko Asierren ekimenak ahalbidetu du dena. Azkenean ale guztiak egun bakarrean saldu nituen”, azaldu du. Musikari donostiarrak “intimitatean” kaleratu nahi izan ditu kanta “pertsonal” hauek: “Pentsatu lehen biran zeuden artistek kaleratzen zituzten zazpi hazbeteko single-etan. Gero ez zen ezer gehiago jakiten kanta horiei buruz, hor geratzen ziren. Nirea antzeko zerbait da”. Etorkizunari begira, Bassmattik jendearen ohiturakin lotzen du diskoen produktzioa; “Zoritxarrez, jendearen musika kontsumitzeko moduei lotuta joango da. Deitu Applera”, dio, umorez.

Kokein talde eibartarrak beste bide bat hartu du, hau ere gure artean behintzat gutxi jorratua. Beraien azken lana, *Izan*, webgunean eskegi dute deskargatzeko moduan, trukean bakoitzaren borondatea eskatuz. “Gure musika ahalik eta gehien zabaltzearen ideia muturrera eraman nahi izan dugu”, azaldu du Jatsu Argarate baxu jotzaileak. Gure artean ikusi ez dugun eredia da hau, baina ez da berria, Argaratek dioenez: “Nazioartean Radiohead eta Nine Inch Nails taldeek egin zuten ezagun diskoa banatzeko modu hau,



**Kokein taldearen
Izan eta Giorgio
Bassmattiren
Canciones para un
duelo sin espadas
izan daitezke,
gurean
diskogintzak hartu
dituen bide
berrien
erakusgarri.**

baina badaude hainbat eta hainbat talde txiki beraien musika horrela banatzen dutenak. Etorkizuna heldu da, eta gu konturatu gara jada”. Formatu fisikoari dagokionean, Kokeinek hasieratik baztertu zuen CD formatua, haien ustez “iraganeko formatua” da, eta biniloa aukeratu zuten, zaharragoa, baina gaur egun musika zaleen artean indar handia izaten jarraitzen duena. Musikaren argitalpenak hartuko duen bideari buruz galdetuta, beraiek egindako hautuak beste talde batzuei ere norabide berriak zabalduko dizkiela uste du Argaratek: “Espero dut iraultza digital honek talde txikiei aukerak emango dizkiela eta herri honetan urte askotan ditugun musikari dinosauroen eraberitza ere ekarriko duela. Freskotasan musikaren aldekoa izango dela espero dut, behintzat joera hau arrunt bilakatzen denean.”

Argitalpenak kaleratzeko eredu berri hauek orde, ez dira soilik sortzaile independenteen kontua. Musikari famatu “egonkor” asko ere saltzeko modu berrien bila dabil-tza, industriak etorkizunik ez duela jakinda. Argaratek aipatu bezala, Radiohead eta Nine Inch Nails taldeak dira bide berriei ekin dieten sortzaile ezagunenak. Kaiser Chiefs talde britainiarrak ere, adibidez, diskoa eskuratzeko modu kurio-oso proposatu zuen pasa den urtean, *The Future is medieval* lana erosle bakoitzak nahieran pertsonalizatzeko aukera eskainita.

Pixkanaka bada ere, musika kaleratzeko bide berriak agertzen ari dira. Iraultza gertatu dela onartu eta formula egokienak aurkitzen dituztenek baino ez dute egingo aurrera. ■



tradebi


EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradebi.com

Liburuak

KRITIKA

Vera Candidaz dakidana.
Véronique Ovaldé.
Itzulpena: Alberto Barandiaran.
Alberdania. 240 orrialde. 20 euro.



Helduen literatura
Saioa Ruiz Gonzalez

Gorputz batean barrena

Eleberriaren izenburua, gonbidapen gisa ageri zaio irakurleari. Ez da izenburu pasiboa, orrialdeetan zehar aurkituko dugunari buruzko deklarazio zintzoa baizik; “hau da *Vera Candidaz dakidana*. Ezagutu nahi baduzu, aurrera”. Eleberria zabaltzea pertsonaiaren barne munduan murgiltzea da, bere emozioetan barreiatzea, funtsean, Vera Candida irakurtzea.

Originala izatetik urrun, literatur tradizioan etengabe birmoldatua izan den motiboetariko bat berreskuratu du idazle frantsesak. Efektu askatzaile-depuratibodun idazkera modu bati helduz, Ovaldé eleberri zirkularra eraiki du, askatasun pertsonalaren metafora izan nahi duen joan eta etorriko bidaian formulaturik.

15 urterekin haurdun, desio batek bultzatuko du Vera Candida bere jaioterria uztera: sendi bereko hiru emakumek garraiatzen duten estigmaten haustea, bere alaba aske hazi eta bizi dadin. Amona Rose Bustamenteren oroitzapen ezabaezina gogoan, eta alabaren aitaren izen aipaezina erraetan gorderik, kontinentera alde egingo du etorkizun berri baten bila.


Vatapunak eta Lahomeriak Karibeko uharteetan eta kontinente edozein hiritan topatzen dute beren baliokide geografiko erreala baina, edozein kasutan, pertsonaiaren barne munduan eraiki eta definitzen diren espazio imaginarioak dira, alegia, Vera Candidaren aldarte psikologikoaren errepresentazio grafikoak. Eleberrian elkarrizketarik eza garatuz doa, esaldi laburren bat noizean behin txertatuz baina, bereziki, lekuen deskripzioei eta prozesu mental zein animiko bati hertsiki lotutako adjektibo ugaritasunari esker, narrazioak astiro egiten du aurrera. Prosa borobil eta zorrotzegiaren erabilerak astun xamar egiten du irakurketa zenbait momentutan baina, era berean, eleberri psikologikoa denez gero, generoaren konbentzioekiko fidelotasun frogia gisa ulertu behar dugu Ovaldéren aldetik.

Eleberriaren erritmoa, pertsonaiaren heltze prozesua gauzatu ahal izateko beharrezkoa den denboraren arabera da: subjektiboa, pertsonala, bizia. Irakurlea, Vera Candida aurrera ematen dituen urrats txikien menpe geratzen da. Orrialde bat, urrats bat. Orrialdeak pasatzearen keinuaz Vera Candidaren azal geruzak askatuz doa, eta harekin batera bere sekreturik intimoenak. Konturatu gabe haren barruan gara, bere erraetan barrena, hitzez inoiz aipatuko ez duen izen horren jakile bilakatzen gaitu. ■



Arnaut Abadiaren zutabe antologia

Arnaut Abadiak *Eskualduna* astekarian publikatutako artikuluen edizioa prestatu du Kepa Altonagak, eta Pamiela argitaletxeak publikatu du, Asisko Urmenetaren marrazkiekin batera. Larresoroko Seminarioko zuzendaria izan zen Abadia, baita aipatu astekariko Laborarier sailaren arduraduna ere 1892tik 1908ra bitartean. Artikulu haue-



Arnaut Abadiaren zoo ilogikoa.
Ed.: Kepa Altonaga.
Pamiela.
198 or. 19,50 euro.

tan, laborarien munduko animaliei buruzko testuak aurkituko ditu irakurleak; eta euskaraz egindako zientzia dibulgazioaren aurrekari kontsidera daitezke. Hautatutako testuak osatzeko Altonagak Abadiaren garaia testuinguruan kokatzeko sarrera idatzi du eta hiztegi txikia ere badauka liburuak amaieran. ■

Krimena eta haren osteko zalaparta mediatikoa

Joseba Orbe idazlea da nobela honetako protagonista. Irratsaio batean bere hurrengo liburuaz esan du gai minbera ukitzen duenez polemika sortuko omen duela. Handik gutxira idazlea modu ankerrean hilko dute; gorpua mendi-bide batean agertuko da eta kasuak zalaparta piztuko du hedabideetan. Espainiako irrati tertulia atzerakoak eta prentsa arrosa ageri dira, besteak beste, Iñaki Irasizabalen *Orbe auziaren ingurukoak* eleberrian; egilearen esanetan nobelak garaiaren eta gizartearen isla direlako neurri handi batean. Kutsu beltzeko liburu da, gai politikoak lantzen dituen, baita guraso eta seme-alaben arteko harremanak ere. ■



Orbe auziaren ingurukoak.
Iñaki Irasizabal.
Elkar.
114 orrialde.
11,30 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Grooo!!!

Porco Bravo.
Autoekoizpena.
Iraupena: 30'59'.
10 euro.

Naturaltasunez egindako rocka, basakeria

GALIZIAKO pedigri nabarmena daukan Porco Bravo rock talde barakaldarrak harrotasunez jarraitzen du eta estreinako diskoaren aurkezpena ospakizun handia izan zen Ezkerraldeko hirian. Basurdearen ibilbidea New Yorkeko eta Eskandinaviako ezkurak jatetiki abiatzen da. Izan ere, iraganean Turbonegroren ukitu nabarmena zuten, gitarra distiratsu eta guzti. Gerora, baina, Vallecako Motociclón eta antzeko taldeekin harreman estua egin

eta rock urbanoa landu dute, makarra, heavyaren aurreko zipriztinak ere badituena. Aipatutakoez gain, La Traperako Morfi, Señor No eta Motörhead ere errebindikatzeko dituzte. Gaztelaniaz abestutako hitzak —oraindik ez dira galizieraz abesten hasi— egiazkoak dira, kalekoak, errepidekoak, min ere egiten dutenak. Eta adi zuzenekoei, basakeria hutsa dira-eta!

www.porcobravo.com

Porco Bravo

«Rockarekin gizakiak barruan daraman piztia askatzen du»

Estocolmo, Vallecas eta Barakaldo. Musika kontuan hartuta hiru zonalde horiek garrantzia al dute taldearentzat?

Gure burua oso barakaldartzat dugu eta sentimentalki Vallecasetik oso hurbil gaude, Madrilgo Barakaldo baita. Atzerriko talde asko entzun ditugu, tartean Eskandinaviakoak, baita 1970eko hamarkadako Detroitakoak eta New Yorkekoak ere.

Rocka piztia instintua al da?

Rockarekin gizakiak barruan daraman piztia askatzen du. Rocka guretzat bizitzako alderdi basatiena da, askatzeko bidea; eta hala zabaltzen dugu kontzertuetan, aurrean mila ikusle edo hiru izan.

Askok bereizten al zaitu Barakaldokoa izateak?

Industriak gainbehera egin zuen hiri batean hazi gara, merkatalgune erraldoiek in mozorrotu dutena, baina onera egin ez duena. Taldekide guztiok Ezkerraldeko punk-rocka txikitatik entzun dugu eta heavya ere zer-



txobait bai. *Bakalao* estiloko musika asko dagoen topikoa egon badago ere, hiri rockeroa izan da beti.

Hitak errepidekoak, auzokoak, taberna-zulokoak dira. Zuen bizipenak al dira?

Kantetako hitzek asko dute gure bizitzetatik. Zertaz hitz egingo genuke bestela? Txerri-taldeaz eta inguruko lagunez.

Jainkoa hil dut. Hitz filosofiko eta existentzialistak rock-and-rollean? Ez zen, bada, rocka txantxa eta gehiegikeria?

Rocka serio hartzen dugu, ez dugu txantxarik egin nahi, baina gure alderdi ganberroena azaleratzen da. Gure hitzak ez dira barre egitekoak, erreferentzia zuzena egiten diote gainean daramagun motxilarari.

Hastapenetako Miguel Rios eta Burning errebindikatu beharko genituzke?

Miguel eta Burning bai, baina horien aurretik baita Bruno Lomas ere, Espainiako Estatuan izan den rock-and-rollaren aitzindaria, La Banda Traperera del Río-ko eta Lone Star-eko kidea, besteak beste.

Nolakoa izan da Carlos Creator-ekin grabatzea?

Carlosekin grabatzea eromena da baina, ez dakigu nola, gure onena ateratzen du. Izugarritzko pertsona eta profesionala da. ■



Ezpalak

JON TORNER



Iciar Bollain (Madril, Espainia, 1967) zuzendari eta aktorea izango da Donostiako Giza-Eskubideen X. Zinemaldiaren ohorezko saritua, gizarte arazoei lotuta-

ko zinemaren arloan egindako lanagatik. Besteren artean, *Flores de otro mundo* (1999), *Te doy mis ojos* (2003), *Matabaris* (2007), *También la lluvia* (2010) eta *Katmandú, un espejo en el cielo* (2011) filmak zuzendu ditu.

Hamaika Telebistak egoitza berria ireki du Donostiako Zuatzu parkeko Pia eraikinean. Duela hiru urte hasi zen emititzen Bilbon, eta geroago Donostiara heldu zen. Duela gutxi arte Gipuzkoa Telebistaren egoitza emititu du, eta orain ere alokairuan jarraituko du. “Gauza batzuk hobetuko ditugu etxe honetan; izango ditugun baliabideak kontuan hartuta, kalitatean nabaritu da”, azaldu du Iñaki Urija zuzendariak. Besteren artean, irrati lizentziak eskuratzeko Eusko Jaurlaritzak irekitako deialdian izena eman dutela jakinarazi du Uriak.



Alfredo Bikondoa (Donostia, 1942) artistaren *Itsas hilerria* izeneko erakusketa dago ikusgai Bilboko Bilboko itsasadarreko itsas museoan. Paul Valery idazle frantziarraren izen bereko


liburua ardatz duen erakusketan 26 margolan eta hiru eskultura (itsas hilerria, gurutzea eta harresia) bildu ditu Bikondoak. Bilbon ikusgai izan ostean, Miarrizten (Lapurdi) erakutsiko dituzte artelanak, eta ondoren Nantesen (Bretainia) eta Bordelen (Frantzia).

Eduardo Apodaka EHuko irakasleak irabazi du 2011ko Juan Zelaia saiakera saria, *Norberaren autonomia krisian* (Pamiela) ikerketa lanagatik. Norberaren autonomia eta garapenaren inguruko hausnarketa proposatu du liburuan. “Norberaren autonomia harremantatik ihes egin eta nork bere baitan aurkitu behar duela esan ohi dute”, dio Apodakak. Bere ustez, ordea, hori ez da egia eta liburuan aurkako ideia azaldu nahi izan du, autonomia jendartearen aurkitu ohi dugula alegia.

Dokuklik bilatzailean XIII. eta XX. mendeen arteko sei milioi dokumentu publiko eta pribatu bildu ditu Jaurlaritzak, baita bi milioi irudi digital baino gehiago ere. Orotara 150 erakunde publiko, fundazio, familia eta norbanakok jarri dituzte euren artxiboak kontsultagai. Halaber, webguneak Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentroan (IRARGI) gordetako dokumentu historikoak bildu ditu.



Francisco Escudero konpositorearen (Zarautz, 1912-Donostia, 2002) musika “ezagutarazi eta gogoratzeko” Gipuzkoako Aldundiak zenbait ekimen antolatu du, bere jaiotzaren mendeurrenean. Apiriletik abendura bitartean, kontzertuak, erakusketak, jardunaldiak eta dantza emanaldiak izango dira, besteak beste, Gipuzkoako hainbat udalerritan. Hilaren 27an, esaterako, Zarauzko Ispilu Arte Galerian Pikondopetik biolontxelo laukoteak emanaldia eskainiko du; eta maiatzaren 6an, Oñatiko Santa Ana antzokian Musikeneko Hausoka bikoteak *Urantz* obra interpretatuko du.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php



AQUARIUM

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1 • 20003 Donostia (Gipuzkoa) • Tel: 943 44 00 99
aquariumss@aquariumss.com • www.aquariumss.com



Abarrak


GORKA BEREZIARTUA

Ergelak elefante ehizan

Shooting an elephant. George Orwell, 1936.

MYANMAR, odol gaiztoko elefante bat herritarren kontra oldartu da eta poliziari —polizia ingelesa, hots, kolonoa— deitu diote riflea hartu eta tira eta tunba, animalia garbitu dezan. Iritsi da lekura pony baten gainean, Winchester bat eskuetan, baina kontatzen dizkioten gauzak nahasiak dira eta han elefanterik ez dabilela pentsatzen hasita, ospa egitea pasako zaio burutik.

Gero gizon baten gorpua ikusiko du, animaliak zanpa-zanpa egina, eta lan zikina ezingo duela saihestu buruan harturik, elefanteentzako rifle bat eskatuko du; hor doa, ehunka herritar atzetik dituela, piztiarenak egitera. Berak ez du elefantea hil nahi, baina bertako biztanleen hatsa sentitzen du lepoan, tiro



egin behar duela esanez bezala. Berunez beteko du azkenik tronpadun zorroaren gorputza, nahiz eta hil, ez duen hilko, baizik eta agonia mingarrian utziko.

George Orwelrek inperialismo britainiarraren metafora egin nahi izan zuen *Shooting an elephant* saio laburrean; erakutsi nahi zuen, inperialismoak biak suntsitzen dituela, konkistatzailea eta konkistatua. Kolonizatzaileak, Orwellen aburuz, “bere bizitza eman behar du ‘natiboak’ harritu nahian, eta beraz, krisi bakoitzean, ‘natiboek’ berarengandik espero dutena egin behar du”.

Poliziak saioaren amaieran elefantea hil izanaren zergatiak azaltzen ditu: “Askotan galdetu diot nire buruari ea beste inork ulertu ote zuen, egin nuena egin nuela, ergelaren pare ez gertatzeko”. Bistan da, garaiak asko aldatu dira, eta orain elefanteak tirokatzeagatik gertatzen dira kolonoak ergelen antzera. Edo elefante ehizan aldaka puskatzeagatik zen?



EGIZUHARPIDETZA
EGIOZUHARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 138 € / Ipar Euskal Herrian 168 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonia

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Báimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

ZELOPARRA
HEMEN PINA

Ihesi

ITXARO BORDA
Argazkiak: Dani Blanco, Axier Lopez



Euskal Herria ezagutuz:
Baiona (Lapurdi)
Bastida, Bidaxune (Nafarroa Beherea)

Aturri hegiko Jerusalem

Zuhaitz genealogikoa inarrosi eta 1643ko Aiherra hartan gure izenarekiko Jakob bat azaltzean, leinuaren lehen zurkaitzaz ametsez gabiltza. Gero eta iraganik gabekoagoak irudikatu gara. Ez da hala noski. Deituratik beretik lurralde honen historia anitzaren kide egiten gara, hemengoak, hangoak, inongoak eta euskal juduen patuaren ikerbidea hartzen dugu Baiona, Bastida eta Bidaxunen barna.



ESPAINIAKO ERREGEAK 1492an judutarrak Portugalera kanporatu zituen. Sei urte beranduago Lusitaniako erregeinak delibero berdina, bortxaz katoliko bihurtu *marranes* eta *conversos* lerroak alegia, iparralde abegikorretara lehiatzera behartu zituen. Israeldarrak Euskal Herrian X. mendeaz geroztik sustraituak ziren bereziki Araban eta Nafarroan. *Pecha* zerga astunak ordaintzen zituzten Tuterako edo Iruñeko komunitateek. Balmasedan ere talde bat aurkitzen zen. Inkisizioaren zatarrak gain, noizbehinka, pogromak jasan zitzaizkion hala nola 1328an Lizarran eta Erriberan 10.000 judutar erail baitzituzten. Nafar kulturaren aberasle ziren Ha Levi pentsalaria eta Tuterako Benjamin ibiltaria. 1994an Nafarroako Gobernuak hiru hizkuntzetan, Xabier Kintanak euskaraz, argitaratu zuen *Bidaien liburu* erakusgarri hura.

XV. gizaldian Baionan kokatzen hasi judu sefaradak Peiorade, Bastida eta Bidaxuneraino hedatu ziren, gaur egun hiri bakoitzean miresten ahal diren hilerri ukigariak lekuko. Herri ezpondetan ikus ditzakegu belardietan umilki etzan harri gris lauek, abizenek, tokien bildutasun usantsuek isiltasunera akuilatzen gaituztela. Viena, Frankfurt edo Berlineko Judische Friedhof haietan bagina bezala. Harrotasuna, beldurra eta dolua nahasten dira bertan, hainbat holokaustotako irudiak, bizidunak intolerantziak erotu daitezkeela oroitaraziz, politikariek demagun lagun protsimoen fedea estigmatizatzen baldin badarraite. Zizek ikerlariak aipatzen dituen *homo sacer* baztertuak ziren luzaz judutarrak. Ipar Euskal Herriko israeldarren kondaira ez zen hain latza hargatik, mendeetan debeku eta apalestugeak irentsi zituzten arren.

1536tik aitzina etorri ziren juduak Santizpiritu auzoko Maubec karrikaren inguruetan plantatzera. Merkatari portugaldar gisa ezagutuek txokolatea eta tabakoa ekarri zituzten. Judutar izena lehen aldiz azaldu zen Baionako paperetan 1614an Santizpiritu kartierrentzat. Ordura arte erritua *mikvé*-ekiko etxe partikularren gordean praktikatzeko zuten eta harreman onak zeuzkaten Santeztebe parrokiako apezekin. Haiek funtsak utzi zituzten sinagogaren eta hilerriaren eraikitzeko Maubec gainaldean, eta beranduago orain zabaltzen den eremuan, ZUParen itzalean. Aturri ibaiaren desbideratzearen ondorioz Baionako judutarrek erosoago egingen zuten komertzioa Espainia, Portugal eta Amsterdameko diasporarekin, oihalak, arrainak, oliba olio eta txokolatea trukatzuz. Tratulari kristau eta judutarrak ederki akomodatzeko zirela azpimarratzen

Baionako hilerri judutarra, ZUPetik hurbil. Santeztebeko parrokia kristauko apezek utzitako funtsei esker eraiki zuten, nola Maubec karrikako sinagoga. Bigarren Mundu Gerran, naziek esbastikak marraztu zituzten hemen.





Herriaren goiko aldean dago Bastidako hilerri judutarra. Ezkerreko argazkian sarrerako idazkuna ikus dezakezue, frantsesez eta hebreeraz idatzia. Eskuinekoan, berriz, judutar harlauzak ageri dira aurreko aldean, eta atzekoan, bidetxo baten bestaldean, hilerri kristaua.

dute dokumentuek. Santizpiritu halatan Aturri hegiko Jerusalem txikia zen.

Baina ez zen ordea egoera guztiz ideala. XVIII. mendean Baionako notableek bidegabeko konkurrentzia egitea bezain garbitasun erlijioso kutsatzea leporatuz judutar denda-jabeei hirian errotzea ukatu zieten. Txokolatearen eta tabakoaren ekoizpenak katolikoen esku baizik ez zuen behar. Bestalde isun eta kartzela zigorrak gaztigatzen zen gauez, zubia trabesatu ezinik, Baionan aurkitu israeldarra. 1760 aldean 3.000 judutar kontatzen ziren Santizpiritun. Bidaxuneko eta Bastidako saldoak orduko gainbehera zebiltzan jendeek hiria eta hiritartasuna hobesten zutelako. Harrietako portugaldar jatorriko abizenak geratzen dira: Azoulai, Dalmeyda, Furtado, Nunes, Abraham, Esther, Jakob edo Rebecca biblikoekin. Alabaina bizpahiru belaunaldiren buruan kristau izenak behiala abandonatu zituzten ohituraren segitzeko.

Memoriaren aztarnen xerka

2004an Anne-Marie Galé kazetariak 52 minutako dokumental zoragarria plazaratu zuen Ipar Euskal Herriko judutarren historia harilkatuz. Ontasunaren Arratsetan bisitatu daitezkeen Sinagoga, Hilerria eta Euskal Erakustokiko gela bereziko

altxor ikusgarriak salbu, hemen kasik ezabatua da memoria. Liburuetan doi-doi aipatzen da bospasei ehun urteetako auzokidetza emankorra. Gaiari zinez interesatzekoa zaio Bidaxuneko pentoka batean gazteluari begira lerratzen den hilerriaz ohartzeko edo Bastidan nafar kutsuko karriketarik zulatuz harlauzak atsedentzen diren sorora iristeko. Argi dago historia honen aztarnen bilatzea norberaren baitako bilakuntza sakona dela.

Bidaxuneko jauretxeak Nafarroako erresumaren zedarrietan soberaniaz gozatu zuen 1570etik kasik frantses iraultza bezperaraino. Agaramontarrek merkataritza portugaldarre bertan ohatzea erraztu zieten eta 1665ean hilerriaren zabaltzea. Bidaxuneko judutarrak barreiatu arte erabili zen. Ehun bat harlauz ageri dira. Geriza politiko berdinez

Hemen kasik ezabatua da memoria. Liburuetan doi-doi aipatzen da bospasei ehun urteetako bizikidetza emankorra. Historia honen aztarnen bilatzea norberaren baitako bilakuntza sakona da

baliatuz Bastidan ere geratu ziren judutarrak berrehun urtez. Hilerriko idatzirik zaharrena 1620koa da, berriena aldiz 1785ekoa. Hiltze egunak egutegi hebrearraren arabera zizelkatuak dira. Bastidako hilerria, Bidaxunekoaren pare, Baionako Kontsistorioaren jabegoan dago jada. Ez dezagula ahantz 1904an Miarrizten sinagoga altxarazi zuela Lazare Poliakov. Baionako Emil Levy rabino handiak egin zuen estrena-mintzaldia. Torah borobilak aterbetzeaz gain Baionak kudeatzen du gaurkoan berritzen doan sinagoga. Miarrizten, erritua, erdizka, ashkenaze eta sefarada modukoa zen eta da. Arku saildua eta altzarien zati bat Peiroradako sinagogaren 1898ko salmentatik zetozen.

Baionako sinagoga

Maubec karrikaren 35. zenbakian eraiki zen 1837an etxe partikularren patioetan sakabanatu oratorioak eta *mikvé*-ak bilduko zituen tenplua. Euskal Herriko judutarrek, alabaina, erritual berezia zuten jatorri anitz eta ugarietakoak zirelako batez ere. 1789ko Iraultzan frantses hiritartasuna eskuratu zuten lehenak ziren Baionako juduak, Bordelekoekin batera. Aturri zeharkatu eta hirian kokatu ziren orduan merkataritza portugaldarrak, Baionako Burtza Bost Kantoien plazan zetzala.



Ezkerrean, Bidaxuneko hilerri judutarreko irudi bat. Herriaren erdigunetik Bidouzeko portutxorako bidean abiatu eta berehala, errepidearen ondoko baratze txiki batean aurkituko duzue hilerri xumea. Eskuinean, Baionako sinagogaren aurrealdea.

XIX. mendeko bizitza ekonomikoa eta politikoaren sustatzaile zitezkeen Furtado, Pereire, Da Silva, Salzedo eta beste hainbat. Isaac Pereirek dirua eman zuen trena Baionara helarazteko eta Furtado auzapez zenean Santizpiritu Baionako auzo bilakatu zen, Aturri gainean harrizko zubi monumentala aurtikiz. Judutarrek hargatik jarraitzen zuten Maubecen, Errepublikan enparantzako iturriaren inguruan eta Jean d'Amou karrikaren espaloietan.

Bankari trebeak ziren: Jules Gomes & Cie delakoak, adibidez, tratua zegien Frantzia hegoalde osoko bezeroekin, bai eta Espainia zein Portugalekoekin, exodoaren aurreko sareak biribilduz. Bilboko Urkijo diruduna maiz gurutzatzen zuen Salzedok. Pertsonaia famatuak jalgi ziren Baionatik: 1968ko Bakea-

ren Nobel saria eskuratu zuen René Cassin eta Mendes France Kontseiluaren presidentaren familia. Balio luke agian gogorarazteak Aviron Bayonnais-aren sortzaile garrantzitsuetan zela Jean d'Amou kalean bermatzen den Marquisat egoitza panpoxeko Tavares zena.

Nazien profanazioa

Erran gabe doa XX. mendea Euskal Herriko judutarrentzat ere gogorra izan zela. Kopuruak behera zihoazen bankarien aferak bezala, merkatariak hurbileko komertziora mugatzen zirela. Bigarren Mundu Gerra bezperan Baionan 1.000 judutar zeuden. Alemaniarrek etortzean gune librean zegoen Pauera bidali ziren familia asko. Petainen gobernuak eskubidez biluzi zituen baina baionarren partetik ez zuten

antisemitismo ekintza bortitzegirik sufritu, salbuespenak salbu. Naziek sinagoga profanatu eta zalditegi antzera erabili zuten. Hilerrian esbastikak marraztu zituzten. Sinagogako aberastasun erritualak Euskal Erakustokian ezkutatu ziren. Bertan daude nahi duenak ikusgai. Izar horia papoan Santizpiritu zubia pasatzen zutenen beldurra eta ahal-ke aipagai da oraino.

Deportazioek eta gerrak bekindatu taldearen mamitzera jin ziren 1962tik gora Aljeria eta Marokoko judutarrek. Baketsuago ospatzen dituzte *shabbat*, ezteiak eta gaineratiko ospakizunak sinagogan. Eta larunbatetan, Maubec aldean, *kippa* buruan Baionako errabinoa agurtzen ahal dugu... ■



Amurrio

Liburu azoka apirilaren 27tik maiatzaren 6ra, Juan Urrutian

EUSKADIKO LIBURU GANBARA


- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:

1. Zerbaiten maila edo neurri. Jateko ona den ibai arrain. 2. **Argazkian**. Azken eta hiru-garren bokalak. 3. Nauka. Uko. 4. Energia mekanikoa energia elektriko bihurtzen duen tresna. Ibai-ontzia, gabarra. 5. Modu atzizkia (alderantziz). Berandu. Idatzi bat osatzen duten hitz-multzo. 6. Zimurdura, izur. Idiak gidatzen. 7. Kexa, auhena. Euri asko egiten duen garaia edo denbora. 8. Zerbait nola egin behar den adierazteko argibide. Goibeltasuna, histura.

Goitik behera:

1. Kopuru handietan. 2. Etxe bat egin. 3. Ehun bat hari bihurtu. Minerala. 4. Sodioaren sinbolo kimikoa. Iritzi, uste. 5. Zenbaki. 6. Mokor, lur-zati trinko. Samarioaren sinbolo kimikoa. 7. Bokala errepikatuta. Ar sortzailea. 8. Jantziak ez zikintzeko, gainean jartzen den soineko. 9. Bira. 10. Argazki baten azpian jartzen den testua. Nihaur (alderantziz). 11. Truke. 12. Sustrai. 13. Haur, ume (Bizkaian). 14. ... egin, eskaini eta ez eman. 15. Garaia, tartea.

Krisiaren ondorioak

Urtero egin ohi duten beza-la, aurtan ere Aste Santu aurreko azken larunbatean elkartu dira bazkaltzera Itziar, Ane eta Karmen. Bakoitzaren bizitzari errepaso laburra eman ondoren, lan kontuez, egoera politiko berriaz, martxoaren 29ko grebaz eta, nola ez, krisi ekonomikoari buruz aritu dira hizketan:

– Ez dakit non bukatu behar dugun! Egoera gero eta zailagoa da, neuk behintzat ikaragarri nabari dut –aipatu du Itziarrek.

– Bai emakumea! Duela gutxi arte ezagutu dugun egoera ez da berriro itzuliko. Egokitu egin behar nola edo hala! –jarraitu du Anek.

– Bada, ni ezin naiteke kexatu –erantzun die Karmenek–. Egia esan, orain arte behintzat nik ez dut krisiaren eragina gehiegi nabaritu...

Solasaldia amaitu dutenean, elkar agurtu eta bakoitza bere etxera itzuli da: Itziar bere Mercedesean, Ane bere BMWan eta Karmen bere Opel Corsan.

Sudokuak

Erraza

		3						
		6	1				3	5
		5		9			4	6
	6	8	4				9	2
2	3		9		8		1	7
5	1				3	6	8	
6	5	2		1		8		
4	8				2	9		
					7			

Zaila

		5	6			4		
	2	4				5		8
7					5		6	
	1		5	6				
5		3				6		9
			7	9		8		
	5		8					4
2		9				8	5	
		7			3	9		

Soluzioak

9	2	7	5	8	4	3	1	6
1	5	6	3	2	7	9	8	4
3	8	4	9	1	6	5	2	7
5	1	3	2	7	4	6	8	9
8	4	9	6	5	3	1	7	2
7	6	8	4	3	1	5	2	9
1	2	5	3	9	7	4	6	8
6	7	3	8	1	4	2	5	9
8	4	3	5	2	6	1	7	9

Erraza

Zaila

8	4	7	2	5	3	9	1	6
2	3	9	1	6	4	8	5	7
1	5	6	8	9	7	2	3	4
4	6	2	7	3	9	1	8	5
5	7	3	4	1	8	6	2	9
9	1	8	5	2	6	7	4	3
7	8	1	9	4	5	3	6	2
6	2	4	3	7	1	5	9	8
3	9	5	6	8	2	4	7	1

Ezker-eskuin: 1. Heiñ, Zarbo. 2. Arranoa, U. 3. Nau, Ulkamen. 4. Dinamo. Ala. 5. Iñ, Berant. 6. Zimur, Iturra. 7. Eros, Euri. 8. Arau, Malenkon. 9. Na, Aburu. 5. Numero. 6. Zokor. Sm. 7. Aa, Alta. 8. Mantel. 9. Buea. 10. Uen. 11. Truk. 12. Erra. 13. Sein. 14. Tait. 15. Unea.

HAURREN HEZIKETARAKO EGUNEROKO GIDA 1. ALEA

Hazi Hezi

*Haurtzaroa, elikadura, sexologia, osasuna,
haurdunaldia, etxeko-lanak, sormena...*
Gurasoei, aitona-amonei, familiei,
zaintzaileei, hezitzaileei...
zuzenduriko hezkuntza aldizkaria

Urteko lau aldizkarien
harpidetzak 20 euro balio du.

Informazioa eta harpidetza:

www.hikhasi.com



Osasuna

JABIER AGIRRE

Giltzurruneke kolikoak

GILTZURRUNEKO KOLIKOA edo koliko nefritikoa giltzurrun inguruan, gerriaren albo batean nahiz bestean, azaltzen den oso min gogorra da. Gernua kanporatzeko oztopo baten ondorioz presioak gora egiten du, eta gernubideak puztu edo handitu egiten dira.

Pixari aurrera egiten uzten ez dion oztopoa kalkulu bat izan ohi da, giltzurruneke irteten den hodiaren barruan sartu eta hor trabatuta geratzen den harri moduko kozkorrak. Askoz ere arraroagoak diren beste kasu batzuetan, buxada odol-koagulu batek edo zorne-bilduma batek sor dezake, edo gernubidea abzesu nahiz tumore batek estutzen duelako agertuko da traba edo oztopoa.

Zer sintoma ditu kolikoak?

Mina, oso zorrotza, gerriaren alde batean kokatzen da, azken saihets-hezuraren parean gutxi gorabehera, eta bat-batean agertu ohi da. Normalean ez da etengabea izaten, une batzuetan baretze antzera egingo du, ondoren berriro azaltzeko, pazienteak harriaz erditzen ariko balitz bezala. Gerri aldetik sabelera zabaltzen da mina, alde horretako iztaira, hortik barrabletara eta zakilpuntara iristeko gizona zkoen kasuan, eta genitaleko ezpain nagusietara emakumeenean. Minaz gain, moles- tiak agertzen dira pixa egiterakoan, eta batzuetan pixa odolez zikindua. Goragaleak, gorakoak eta izerdi hotza ere sarritan agertzen dira.

Ba al da konplikaziorik?

Ez dira oso usuak, baina ez dira hala ere baztertzeko modukoak: gernu-infekzioak dira arruntenak, gernubideak buxatuta daudenez. Buxadura erabatekoa baldin bada, pixa ezin da kanporatu eta trabatuta geratzen da, gernubideak dilatatu- tuz doaz eta gernuaren presioak gora egiten du. Horrek giltzurru- nei eragiten die, eta horixe da lesio larri samarrak sortzeko arrisku nagusia.



WWW.GALENORED.COM

Kolika duenak larrialdietara joan behar du, mina tratatu eta diagnostikoa ziurtatzeko. Garrantzi handikoa da kolikoaren arrazoia zein den jakitea; erradiografia arruntetan ikusten ez diren kalkuluak badaudenez, ekografia erabiltzen da zalan- tza guztiak argitzeko. Kontraste bidez- ko erradiografiak edo erresonantzia magnetikoa ere erabil daitezke harria non dagoen zehazteko, bate- tik; erabakitzeke ea bere kasa kan- poratuko den, edota, aitzitik, trata-

mendua beharko den kalkulu botat- zeko, bestetik; eta giltzurrunean gerta daitezkeen eraginak eta ondo- rioak baloratzeko, azkenik. Mina bero lokalarekin baretzen da: ur- poltsa bero bat, esterila elektrikoa edo, erremediorik onena, gerriraino estaliko gaituen ur bero-berozko bainu batean murgiltzea.

Eta prebentzio moduan zer?

Kolika harriak eragindakoa denean, ezinezkoa da berriro erre- pikatuko den ala ez jakitea, kalkuluak desegin eta kanpo- ratu arren. Horregatik, harri gehiagorik sor ez dadin saia- tzea da aurrera begira egin beharreko gauzarik garrant- zitsuena. Ariketa fisikoa egin, horrek harriak eratzea zailtzen duelako. Komeni da egunean bi litro ur gutxienez edatea, honela banatuta: eguneko otordu nagusietan, otorduak pasa eta handik bi ordura eta ohera joaterako- an. Neurri dietetikoak aldatu egiten dira zertxobait, harriaren konposizioaren arabera. Gatz eta proteinen kontsumoa mugatu behar da otorduetan, ger- nuan kaltzioa eta azido urikoa gehitzen dituztelako. Eguneroko elikaduran hurrengoak dira kon- trolatu beharreko jakiak: esnekiak kaltziozko harrien kasuan; berdu- rak, lekaleak eta zitrikoak oxalatoz eratutako harrien kasuan; eta hara- giak oro har eta erraiak eta barru- kiak bereziki azido urikozko harrien kasuan.

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Axinse

UKRAINAN ZEN TXERNOBYL. Txernobyl hitzak “zizare-belarra hazten den tokia” adierazten du, hau da, *Artemisia vulgaris* belarraren gustuko lurrak. Jendarte zekenaren hondakindegia nuklearra bihurtua dugunetik ez dakit izena aldatu beharko ote diogun edo Txernobyl izaten jarraituko duen. Bizi ote da han zizare-belarik? Eta zizare-rik? Jendea uxatu bai, baina landare jendea lasaitu eta aberastu egingo zen, agian...

Osasunei zizare-belarrak adina mesede egiten dienik gutxi izango da, bakanen bat. Nuklearrek bezala honek ere erakarri eta uxatzen dituenak ditu. Nuklear kontuak botere eta diru gose eta egarri eta gehiago direnak erakartzen ditu, eta ordaintzen dutenak uxatzen. Zizare-belarrak intsektuak uxatzen ditu; jartzazu baratze ertzean. Erakartzen duenik ere bada: psikotropiko zalea den jendea.

Belar horrek osabide eta osagarri diren osagaiak sortzen ditu. Osagarri guztien eran osabide edo pozoi izatearen arteko muga tamainan dago. Zainekoa dute tamaina hartu beharrekoak izate hori...

Zain bereko familiako diren zizare-belarra eta bere ahizpa asentsio-belarra (*Artemisia absinthium*) antz handia duten horietakoak dira, bizkiak. Bien osagarriak



HILLS-ABSINTHE.COM

erruz erabili ditugu. Eta zeinena baino zeinena mikatzagoak dira. Landare horiek jan edo edanez gero mikatzasun horrek mesede besterik ez digu egingo.

Asentsio-belarrak duen *absinthium* abizena grekoko *apsinthion* hitzetik dator. Horrek desatsegina, gozagaitza, kaltegarria, galgarria, mina adierazten du, mikatzegia, gezamina, alegia. Hitz greko horretatik dator, asentsio bezala, ia galdua dugun euskarazko axinse izena.

Belar horrekin egin izan da absenta edari mitikoa. Frantzia munduaren zilbortxo zen sasoian, nor bazela adierazi nahi zuenak edari hori hartu behar zuen, bere alkohol puskarrekin, %60tik gora izan ohi zuen. Alkoholaz gain tujona ere bazuen, osasungarri eta pozoi arteko muga azken horren alde-
ra pasarazi zuten gaia. Negozio

pagotxa galtzen ari ziren ardo ekoizleek sustatutako propaganda txarrari esker... Orain badakigu, kaltegarria izateko edan ezina litzatekeen mikatzasun maila luke, eta atzera, 1998tik, Europan onartua dago. Absenta galarazia egonagatik asentsio-belarra edo axinsea bermutean hartu da, barra-barra. Beste belarren artean osagai nagusietakoa baitzuen axinsea edo alemanez *wormuot* edo *wormuota*...



Biberoak SAT Legu

C/ Goitoltza Auzoa, 36 · 48196 Lezama Bizkaia · Telf:944556198
biberoaklegu@gmail.com · http://www.biberoaklegu.com



© 660 745 774 / 699 152 282

milorri@usurbil.com

Usurbil

milorriorezaintzaekologikoa.blogspot.com

Denboraren makina


N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Urrea etxean prestatzeko errezeta

LONDRES, 1884KO URRIAREN 27A. Harry Fell ize-neko asmatzaileak Britainia Handiko 14.204. patentea eskuratu zuen: garia urre bihurtzeko metodoa.

Fell ez zen izan Midas erregearena egiten ahalegindu zen lehena, ezta azkena ere. Alkimiaren helburu nagusietakoa horixe izan da mendeetan zehar: material merkeagoetatik urrea lortzea. Esaterako, Ebers papiroak (K.a. XVI. mendea) eta Leiden eta Stockholmeko papiroek (K.a. III. mendea) Antzinako Egipton, dagoeneko, urrea eta zilarra egiteko hainbat teknika eta formula probatu zituztela adierazten dute.

Baina material preziatuena lehengai merkeenaz egiteko saiakeraren saria Hennig Brand alemaniarri eman beharko diogu. Emaztearen ezkonsariari esker, Brandek nahi adina denbora eta bitarteko zuen alkimiaren arteari eskaintzeko, eta 1675ean giza gernua urre bihurtzeari ekin zion, antzeko kolorea izanik jatorri bera izango zutela pentsatuta, agian. 50 ontzi pix bildu eta hilabeteak eman zituen likidoa destilatzen, nahasten, disolbatzen, berotzen, bahetzen... Azkenean, gernuak urre kolorea ere galdu zuen; substantzia zuri transluzidoa beste-



ABC KOLINGEN

Edozein lehengai urre bihurtzeko saiakera asko egin dira, baina Harry Fell izan zen bere metodoa patentatu zuen bakarra.

zeta askoz errazagoa zen: nahastu gari aleak eta lasto ebakia, erdia eta erdia, eta utzi uretan beratzen hamar orduz, 59° F-tan (15° C); hamar ordu igarota, irazi nahasketa, eta utzi pausatzen 24 orduz, 60° F-tan (15,5° C); egun osoa pasata, likidoa estaltzen duen mintza urrezkoa izango da!

Guk dakigula, 4.000 urtez urrea fabrikatzeko saiakera guztiek porrot egin dute. Orduan, zergatik patentatu zuen Fellek bere metodoa? Nire nahasketari hamar bat ordu gertzen zaizkio oraindik. Datorren astean orrialde honen sinadura ez baduzue topatzen, badakizue...



Arrastoak

Tuterako unibertsitarioek Atapuercan industeko aukera dute

NUÑO DOMINGUEZ



TUTERAKO UNED-EK (Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala) Atapuercako aztarnategiko indusketa lanetan parte hartzeko beka deitu berri du. Hala, Geografia eta Historia ikasten ari diren ikasleek prestakuntza teorikoa jardun praktiko horren bidez

osatzeko aukera izango dute datorren uztailleko lehen hamabostaldian.

Burgosko aztarnategia Europako garrantzitsuenetakoa da. Han, besteak beste, lau hominido espezieetako arrastoak aurkitu dituzte, hala nola Europako lehen gizakiena.

Altabizkarko Kantua

Oihu bat aditua izan da

Eugène Garay de Monglavek Altabizkarko Kantua argitaratu zuenean, duela ia bi mende, euskaldunen herri poesia epikoa “aurkitu” nahi izan zuen. Kantuaren faltsutasunaz asko eztabaidatu izan da, ez hainbeste faltsutasun horren intentzioaz: euskal gogoak behar zuen iruditeria sortzea.

SANTI LEONE

1834AN, Pariseko *Journal de l'Institut Historique* aldizkariko lehen alean argitaratu zuen Eugène Garay de Monglave baionarrak *Le Chant d'Altabiçar*, Altabizkarko Kantua, euskaldunek Karlandiaren armada-ri eragindako porrota kantatzen zuen poema epikoa eta ustez zaharra. Baina historia hau, berez, berrogeita hamar urte bat lehenago hasi zen, Alemanian, Johann Gottfried Herder filosofoaren orrialdeen artean.

1784-1791 urteetan publikaturiko *Ideen zur Philosophie der Geschichte der Menschheit* lan mardulean, Herderrek orri bat eskaini zien euskaldunei. Han euskal herriaren eta hizkuntzaren antzinakotasuna azpimarratu zuen, eta eus-

kaldunak historian egindako zenbait balentria nabarmendu. Orreagako bataila, bertzeak bertze. Herderren ustez, “desiratze-koa litzateke herri alai eta azkar honen mintzaira, ohiturak eta historia ezagutuko bagenitu eta, Macphersonek zelten artean egin duen bezala, haien arteko bigarren Larramendi batek antzinako euskal gogo nazionalaren hondarrak bilatu eta ikertuko balitu”. Monglavek berak, Altabizkarko Kantuari paratu zion hitzaurrean, Macphersonen izena aipatuko zuen: “Beharbada, etorriko da euskaldunen kantu zaharrak bilduko dituen Macpherson”.


James Macphersonen itzal luzea

XVIII. mendean, James Macphersonek tradizio gaelikoan oinarritutako bere poemen bidez Eskoziako zenbait pertsonaia (Fingal, Ossian...) famatu bihurtu zituen Europa osoan. Halere, polemikak hasmentatik segitu zion Macphersonen lanari, eta ez ziren guti haren lana faltsukeriatzat jo zutenak. Herderren aipua, ordea, positiboa zen, eta erromantiko alemanek eskoziarrari buruz zuten ikuspuntua ongi islatzen du.

Ez da kasualitatea Monglavek ere eskoziarraren izena gogora ekarri izana, baina pentsatzekoa da aipu horren erranahia konplexuagoa dela. Alde batetik, baionarrak ere



Angulemako Saint-Pierre katedralaren aurrealdeko erliebea; Errolanen Kantua irudikatzen du.



Goian, Garay de Monglavek *Journal de l'Institut Historique* aldizkarian argitaratutako kantu ezaguna (1834). Behean, Jean-François Bladé-ren artikulua (1866), Altabizkarko Kantua faltsua zela salatu zuen lehena; eta James Macpherson, Monglave inspiratu zuen idazle eskoziarra.

kantu ezaguna zen euskaldunen artean, ahoz aho transmititua.

Hartara, ahozko tradizioa –Monglavek bildua– eta tradizio idatzia –Donostiako eskuizkribua– batzen zituen poemak arrakasta handia izan zuen XIX. mendean. Francisque Michelek, 1857an, *Le Pays Basque* liburuan sartu zuen, herri poesiaren atalean, eta Monglavek ematen zion antzinakotasuna onartzen ez bazion ere, poema zaharra zela aitortzen zuen. Julio Nombela madrildar euskaltzaleak espainolezko itzulpen bat publikatu zuen *Crónica de la Provincia de Navarra*-n: “Kantu honek antzinako euskaldunen adorearen berri ematen du”, idatzi zuen Nombelak. Halaber, Louis Landek, 1878an, hamar mendeko adina aitortu zion poemari bere *Basques et Navarrais* liburuan, eta, urte hartan berean, Hermilio de Olorizek bere bertsioa kaleratu zuen Iruñeko *Revista Euskarako* lehen alean.

Alta, ordurako, kantuaeren egiazkotasuna zalantzan jarria zegoen, batez ere jakintsu baten eskutik, Jean-François Bladé-ren eskutik hain zuzen ere. 1866an idatzirik *Dissertation sur les chants heroïques des Basques* lanean salatua zuen Bladé kantuaeren faltsukeria. Testu horretan, kritika zorrotza egin zion Monglaveri, eta poema berria dela nabarmen-tzeaz gain, *Journal de l'Institut*-eko bertsioak itzulpena behar zuela erra-tera iritsi zen Bladé. 1883an, pisu handiko bertze euskal ikertzaile batek, Wentworth Websterrek, bat egin zuen Bladéekin *Boletín de la Real Academia de la Historia*-rako idatzita-ko artikulua labur batean.

Halere, kantuaeren arrakasta eta kantuaeren gaineko kritikak gorabehera, galdegin beharko genuke zertara heldu zen historia hori guztia. Zertarako sortu kantua? Zertarako hain sutsu defendatu, zenbaitek egin zuten bezala?

Herderrek berak ematen zion balioa ematen zion Macphersoni; alegia, herri tradizioaren bilatzaile eta zabaltzailearen balioa. Baina, bertetik, ez genuke baztertu behar faltsutzailearen balioa ere kontuan hartu izana. Zeren oraindik ez baitugu erran: 1834an Garay de Monglavek Orreagako batailaren garai-kide gisa saldu nahi izan zuen poema ez zen poema zaharra, berak idatzirik poema baizik. Are gehiago, Monglavek argitara emandakoa itzulpena zen (Louis Duhalderena), berak frantsesez baitzuen idatzia poema. Beraz, hauxe nire hipotesia: Monglavek Herderren testua irakurri –1820ko hamarkadaz geroztik frantsesez eskuragarri zegoena–, bi gehi bi kalkulatu eta lau atera zitzaion: euskaldunek ez dute herri poesia epikorik, baina, Europako herri zaharrenetarik izanik, izan beharko lukete; Eskozian bezala, Euskal Herrian ere poesia hori bilatu-asmatu-ikertu-taxutuko duen Macpherson bat behar litzateke; eta, naski bere buruari egin zion azken galdera: eta neure gain hartuko banu Macphersonen zeregin

hori? Neroni banintz Euskal Herriko Macpherson? 1866an, Jean-François Bladé ikertzaileak eskoziarraren izena aipatu izana leporatuko zion Monglaveri: “Gaur egun, guztioak dakigu, Garay de Monglave jaunak izan ezik, Ossianen poesiak faltsutzaile trebe baten obra direla”. Baina, beharbada, Garay de Monglave jaunak ere bazekien.

Kantu baten arrakasta eta arrazoiak

Altabizkarko Kantua argitaratzean, Eugène Garay de Monglavek erran zuen Donostian aurkitutako eskuizkribu batean ikusia zuela, nahiz eta *Journal de l'Institut*-eko bertsioa hura ez izan: Pirinioen bi aldeetan bilduak zituen zenbait aldaeraren bidez osatua zuen Monglavek. Izan ere, haren hitzetan, Altabizkarkoa

Euskaldunek behar zuten baina inon agertzen ez zen poesia epikoa sortzeari ekin zion Monglavek

Eskaintza

Heldu diren lerroak idazteko proiektua aspaldian sortu zen, Pirinioetan eginiko bazkari batean. Hasmentan, hiru ginen parte hartzeokoak: Joxemiel Bidador, Patxi Larrion eta neroni. Joxemiel zenak agudo demonio egin zuen bere parte, eta, geroago, argitaratu ere argitaratu zuen, bertze biak ez zirela heldu ikusita. Patxi ere zegokion lana bete egin zuen. Ni izan nintzen idatzi beharrekoa idatzi ez nuena, eta proiektua bertan behera gelditu izanaren erruduna. Zor hura kitatzera heldu naiz orain, eta, bidenabarkoan, Joxemieli omenaldi egitera, hari baitaude dedikatuak orrialde hauek.



JOSU SANTESTEBAN

Joxemiel Bidador.

Erantzuna, Hermilio de Olorizek bere itzulpena argitaratu zuen urte eta toki berean aurkitzen ahal dugu: 1878an, Arturo Campionek artikulu bat idatzi zuen *Revista Euskara*: “*La poesía popular vascongada y sus relaciones con la capacidad poética de la raza euskara*” (Euskal herri poesia eta haren harremana euskal arrazaren gaitasun poetikoarekin). Bertan, Herder ekarriko du hizpidera Campionek, hasmentako lerroetan aipaturiko liburua —eta, hain zuzen ere, segur aski Garay de Monglavek berak irakurri zuen bertsioa—. Hor baitago gakoa: Herderrek nahi zuen bezala, herri baten arima haren kantak, haren herri poesia dela onartzen baldin badugu, orduan euskal herriaren existentzia ari gara frogatzen herri horrek poesia baduela frogatzen ari garelarik. Herderrek eskatu bezala, Garay de Monglave euskal gogoaren bila zebilen.

Iruzurra ote?

XX. mendean ere izan ditu kritika-riak Altabizkarko Kantuak. Adibidez, Jon Juaristik egurtu zuen *El linaje de Aitor* liburuan. Sotilago —baina maltzurrago—, 2006ko liburu baten hitzaurrean, Pascual Tamburrik iradoki zuen, oharkabea—edo, “Altabizkarko Kantuaren 'istripua' uste baino adierazgarriagoa dela”, erran nahi baita, euskal kultura osoa, kantua bezala, iruzur baten emaitza dela, edo hori defendatzen du Tamburrik —ez, jakina, hitz horiekin—.

Iruzurra ote da Altabizkarko Kantua? Neurri batean, bai. Hau da, haren egileak IX edo X. mendekoa balitz bezala —eta jatorriz euskaraz idatzia— azaltzen duena XIX. mendeko —jatorriz frantsesez egin— poema bat dugu. Akort. Hala ere, zilegi litzateke honako hau galdegitea: eta guk, zer dugu guk? Lehenik eta behin, poema polit bat: izan ere, Bladé, bertzeak bertze, modernoegi izateagatik kritikatu zuen, ez baitu ez errimarik ez metrika ezagunik. Eta, bigarrenik, Euskal Herria asmatzeko saio ederra, bere garaiko giro erromantikoarekin bat egiten duena. Iruzurra bera baino gehiago, iruzurraren testuingurua eta faltsukeriaren arrazoiak interesatzen zaizkigu. Eta poemak gure iruditerian utzitako arrastoa. Euskaldunek izan behar zuten baina inon agertzen ez zen poesia epikoa sortzeari ekin zion Monglavek, Pirinioetan oraindik euskal gogo badabilela erakutsi nahian. Erran nahi baita, badabilela orain. Garay de Monglaveri naski oraina interesatzen baitzitzaien, iragana baino aise gehiago. Eta hor bai, badugu zer ikasia 1834an idatua izan zen oihu hartatik. ■



BESARO LANDA HOTELA



*Iratiko oihanaren
sarreran*



Tel.: 948 890 350
www.besaro.es
hotel@besaro.es

www.facebook.com/HotelRuralBesaro



Frantziako presidentetzarako bozak

Sarkozyk gerra psikologikoa

Hollande faboritoari

Inkestek iragarritako hautagaien emaitzak bete dira, gutxi gorabehera. Parte-hartzearen ehunekoan huts egin dute, ordea. Herritarren %80ak bozkatu du, espero baino ehuneko hamar gehiago. Sarkozyren bataila psikologikopean jokatu da bigarren itzulia

MIKEL ASURMENDI

BOZEN ESTIMAZIOAK ezagutu zirenean (igandeko 20:00etan) Hollandek (%28,60 lortu du) bi puntu eta erdi ateratzen zion Sarkozyri; (%27,10 lortu du). Azkenean, hautagai sozialistak presidente kontserbadoreak baino puntu bat eta erdi gehiago erdietsi du. Espero baino gutxiago? Gehiago? Dena dela ere, Hollande da irabazlea eta Sarkozy galtzaila. Atzo arte, presidente bat ez zen bigarrena izan lehenengo itzulian. Estimazioek Marine Le Peni bozen %20 eman zioten; (muturreko eskuindarrak bozen %18,20 lortu du). Puntu eta erdi hori Sarkozyk bere egin du azkenik. Hirurak izan ziren gaueko protagonistak, eta Le Pen, psikologikoki, garaile nagusia.

Hollande faboritoa, baina kasu

Hollande da presidente izateko faboritoa. Ezkerreko (Mélenchon, Joly, Poutou, Arthaud) gainerako hautagaien –Sarkozyren aurkako deia egin dute– sostengua dauka. Aski al da, halere? Le Penek bere aitaren diskurtso gogorra –arrazismoa, segurtasuna...– leundu du, eta krisi-oldeak jotako –Sarkozyren– eskuin moderatuari espazio puska kendu dio. Le Penen hitzetan eskuin berria sortzeaz dago Frantzian. Ezkerrak bildots



François Hollande (PS) botoen %28,60ekin irabazi du lehen itzulia. Maiatzaren 6an jakingo dugu Frantziako presidente izango den ala ez.

larruz jantzitako otsoa jotzen du Le Pen. Nola ikusten dute zentristek Le Pen, ordea? Botoak herritarren esku daude, baina lehen itzuliaren ondoren kanpoan geratu diren hautagaien jarrerek bozemaileengan eraginen dute. Alta, bada, Le Pen

eta Bayrouren jarrera anbigueok bizirik atxikitzen dituzte Sarkozyren itxaropenak eta aukerak. Eskuin-eskuineko Le Penen eta eskuin-zentroko François Bayrouren jarrerek bereziki eraginen dute presidentea erabakitzeke unean.

Sarkozyk ez du etsiko

Sarkozy kolpatuta dago, baina ez dago K.O. Botereak ematen dion artilleria guztia jarri du indarrean jada. Hedabideetan lehiatu nahi du Hollanderekin. Hiru eztabaida proposatu dizkio telebistan. Hollandek bat baino ez dio onartu. Sarkozyk beldurraren diskurtsoa zabaldu du dagoeneko. Estatuaren segurtasun printzipioa da bere leloa. Finantza botereak samurtzen ditu, eta herritarrek beriz, larderiaz durduzatzen. Frantzia indartsuan oinarritzen du bere bataila psikologikoa.

Ipar Euskal Herria

Hollande Sarkozyren aitzin kokatu da Iparraldean. Hirugarrena Bayrou, Mélenchon laugarren, eta Le Pen bosgarrena. Hollande etorriko al da kanpainen Euskal Herrira? Maiatzaren 6an ezagutuko dugu presidentea. ■



Maite Goñi
Teknologia berrietan aditua



«Gazteek albokoarekin nola hitz egiten dute? Bada, Tuentin berdin»

Irakasle ordiziarra sarean kateatuta dabil, berak hala nahi duelako. Teknologia berriak ondo erabiltzen asmatuz gero, mila gauza baliagarri otutzen zaizkio: euskarazko edukiak sortzea, ikasleak motibatzea, egindako lana partekatzea...

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatean ikasleen eta irakasleen irakasle da orain, ia egun osoz. Hala ere, Ordiziako Jakintza Ikastolan segitzen du batxilergoko ikasleekin. Euskal Jakintza, hau da, euskara eta literatura irakasten dizkie gazteei. Denek ordenagailua daukate mahai ganean.

Euskara arbelik gabe irakasten duzu?
Beste ikasgai batzuetan jarraitzen dute arbela erabiltzen. Nik ez dut erabiltzen. Lan guztia sarean egiten dugu, eta sarerako.

Zergatik lan egiteko molde hori?

Orain dela zazpi urte hasi nintzen Euskal Jakintza proiektuarekin. Batxilergoko bigarren mailako ikasleak oso desmotibatuta ikusten nituen. Ordurako *IKTroak* bloga sortua genuen ikastolan. Pentsatu nuen bloga izan zitekeela, nolabait esanda, gure testuliburua. Ikasleek ordenagailua edukita testuliburuak guk geuk sortuko genituela pentsatu nuen, hau da, curriculumak markatzen dituen eduki guztiak guk egingo genituela.

Nola egiten da hori?

Eman dezagun aditza erreparasatu behar dugula. Testuliburuak eta fotokopiak alde batera utzi genituen. Aditzak lantzeko hutsuneak betetzeko ariketak egiten dira askotan; bada, ikasleek modu pasiboan hutsuneak bete beharrean, beraiek sortzen zituzten esaldi osoak eta erantzunak ematen zituzten.

Ariketa beraiek sortzen dute, beraz.

Adibidez, irakasleak indikatiboa orainaldian landu nahi badu, ikasleari esango dio ariketak sortzeko. Ikaslea da protagonista ikaskuntza-irakas-kuntza prozesuan. Askoz gehiago kostatzen da holako ariketak prestatzea hutsunea betetzea baino. Beste helburu bat ere baguenen: ikasleek irakasle rola betetzea. Ikasle pareak indikatiboa orainaldian lantzen duten ariketak sortzen ditu, aldameneko bikoteak lehenaldian. Bada, ondoren, ikasle batek besteari erakutsiko dizkio prestatutako ariketak. Nik bideratu egiten ditut, ez txapa sartu eta hutsuneak betetzeko esan. Haiek protagonista izatea nahi dut.

Zenbat tweet?

Etxean mahaiko ordenagailua eta hiru pantaila dauzka. Bi ordenagailu eramangarri, tablet-a, i-phone-a eta mugikorra.

Goizero zer arropa jantzi pentsatzen dugun bezala zuk zein gailu eraman erabakitzen al duzu?

Askotan ez dut jakiten eguna non bukatuko dudan eta gailu asko eramaten ditut badaezpada ere, baina ezinbestekoa mugikorra dut; 24-7, alegia, eguneko 24 orduz eta asteko zazpi egunetan.

Egunean zenbat tweet bidaltzen dituzu?

Saiatzen naiz burutik pasatzen zaidan guztia ez bidaltzen. Bi gauza dauzkat garbi: bata, Twitter kontua ireki baduzu nahi duzun erabilera eman diezaiokezu. Askok edo gutxi bota ditzakezu, tontakeriak edo gauza serioak esan. Ez duzu inor behartu zure jarraitzaile izateko. Bi, jarraitzaile asko badituzu ordea, jada ez zara hain libre. Ez dut jartzen edozer gauza.

Sortzea, irakastea eta hirugarren helburua, partekatzea.

Materiala sareko formatura pasatzeko aplikazio batzuk ezagutzen nituen. Guk sortutako material hori guztia besteen eskura jartzen hasi ginen. Zein izan zen gure sorpresa? Ikastetxeak, euskaltegiak eta abar, gure materiala erabiltzen hasi ziren. Zorionak eta eskerrak ematen zizkiguten eta batzuetan eskatu: “Zergatik ez dizkiguzue egiten halako eta halako ariketak...”.

“Ikasleei berdin zaie hizkuntza, edukiagatik joaten dira toki batera edo bestera. Beraz, oso inportantea da arrantzan dabilatzala nahi gabe euskaraz dagoen eduki erakargarria topatzea”

Ikasleek zer zioten?

Gogoan daukat lehenengo ariketak egin eta sarean jarritakoan ikasle batek esan zuena: “Eta orain zeinek ordainduko digu?”. Eta nik esan nien: “Ez, ez, ez, zuen heziketaren parte bat gizarateak ordaintzen du. Zorretan zaudete eta bueltatu egin behar duzue”. Gaur egun ikasleek bere artikulua [elkarriketak adibidez] noiz argitaratu behar dugun galdetzen dute.

Eta gogo handiagoz ari al dira ikasten ikasleak?

Lehen irakaslearen eta ikaslearen artekoa zen, hark niri eman eta nik gorritz h-ak zuzendu, eta hurrengo egunean berriz. Dena dela, garbi gera dadila kontua ez dela ikasgelan ordenagailuak ipintzea, baliabide piloa behar da horrela aritzeko.

Ikasgeletan testulibururik erabiliko ez den eguna iritsiko al da?

Nik uste dut baietz. Xabier Mendi-guren Elizegi [editorea] laguna dut eta duela sei-zazpi urte esan zidan: “Aizu, zu izan zara esan duena: ‘Ez nintzateke erotuta ere itzuliko testuliburueta?’”. “Zu lasai”, esan nion, baina testuliburuak ez dute inongo zentzurik; formatuak ez du zentzurik, edukiak bai. Adibide garbi bat: Harkaitz Cano ari ginen lantzen eta haren jaioturtea eta lehen liburuaren izenburua baino ez zekarren. Ez dauka zentzurik! Liburua ixten duzun momentuan zaharkituta geratu da. Ikasleek orain Harkaitz Canori buruz egiten dituzten lanetan *Twist* ere lantzen dute, eta testuliburuarekin ezinezkoa litza-teke. Nik esaten diet ez geratzeko iturri bakan horrekin; sareak hori ematen du, eta jakin behar dute kritikoak izaten, jakin behar dute iragazia pasatzen. Nik oso garbi ikusten dut.

Berriz etorriko zaizu editorea.

Ez dut uste, ezagutzen dugu elkar, kar, kar, kar. Irreal da, absurdoa, ez dakit jendea nola ez den konturatzeko. Ikasleak klik eta klik bizi dira, ikusi behar da nolako inputa duten! Gero, ikasgelan sartu eta mundu hori ixten zaie. Hau [ARGIAREN ale bat dauka eskuetan] ematen zaie, baina hemen ezin dute klik egin eta

gauza gehiago ikusi. Anakronismoa da. Zein motatako ikasleak nahi ditugu? Sortzaileak? Kritikoak? Tar, tar, tar... indarra ahotik joaten zaigu.

Argitaletxeek norabidea aldatu beharko dute.

Izugarrizko potentziala dago hor.

Baina zuek sortzen dituzue ariketak...

Gure ikasleen lanak ez du inoiz ordezkaturiko editorialak egingo lukeen lana, haiek profesionalak dira. Gurea ez da beste inor ordezkatzeari, ikasleen ikas-irakas prozesuan sartzen da.

Sarean, euskaraz asko egiten da eta asko dago egiteko.

Ez dago motibazio faltarik, dena dago egiteko. Ikasleei berdin zaie hizkuntza, edukiagatik joaten dira toki batera edo bestera. Bideoa gustatzen bazaie klik egingo dute, kontuan izan gabe euskaraz dagoen ala beste hizkuntza batean. Beraz, oso inportantea da arrantzan dabilatzala nahi gabe euskaraz dagoen eduki erakargarria topatzea.

Interneten euskara aurre xamarrean dabil.

Hiztun kopurua kontuan edukita, bai. Komunitate txikia, baina oso aktiboa gara. Hiztun kopuru gutxi-ko komunitateari sareak aukera ematen dio. Gainera, B aukerarik ez dago.

Ikertetek diote gazteak Interneten, egoera informaletan, gaztelaniaz askoz hobeto moldatzen direla eta euskara erabiltzekotan era formalean darabiltela.

Betiko kontua da. Askotan sare sozialei bota izan zaie errua, baina zer egiten dute kalean, eskolan? Sare sozialetan egiten duten gauza



“Testuliburuek ez dute inongo zentzurik. Liburua ixten duzun momentuan zaharkituta geratu dira”.

bera. Gazteek aldamenekoarekin nola hitz egiten dute? Bada Tuentin berdin egingo dute. Nola bada? Denean ahalegin guztiak egin beharko dira gazte horiek erdarara jo ez dezaten. Erronka zaila da, oso-oso zaila. Egutero ikusten dut, badakite euskaraz, ederki moldatzen dira eta derrepente pasilloetan gaztelaniaz hitz egiten entzuten dituzu.

Guk aplikazioak, programak, edukiak... euskaraz egin behar ditugu haiek erabil ditzaten. Tuentin baldin badaude, nire uste apalean, ez sortu sare paralelo bat, goazen euskaratzera Tuenti. Goazen Wikipedia edukiz hornitzera. Jokoak gustatzen zaizkie, bada goazen jokoak euskaraz eskaintzera. ■



Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia

**gure!
artean!
euskaraz**



**BFA
DFB**

Bero-beroan

ONINTZA IRURETA AZKUNE

82 haur ezingo dira euskaraz matrikulatu

IRUÑEKO ALDE ZAHARREAN Haur Eskola bakarra dago, eta 58 ume-erentzako tokia dauka. Alde Zaharrean Haur Eskola Euskaraz! plataformak, iaz bezala aurten ere, bere kabuz matrikulazio kanpaina egin du eta auzoko gurasoei galdetu die ea datorren ikasturtean haurrak euskarazko Haur Eskolan matrikulatuko lituzketen. Iaz 70 haurren izen-abizenak lortu zituzten eta aurten 82renak. Zerrenda Iruñeko Udalera bidali dute. Izan ere, Alde Zaharreko Haur Eskola bakarra gaztelaniaz aritzen da. Egoera aldatzen ez bada

umeak euskaraz matrikulatu nahi dituzten gurasoek inguruko auzoetara jo beharko dute euskarazko ereduaren haur eskolak aurkitzeko.

“Hirinet.net”
sortu dute Gasteizen

“GEU GASTEIZ” ALDIZKARIAK 2009an itxi zituen ateak eta Geu Gasteiz euskara elkarteak sumatzen zuen bazegoela gasteiztar euskaldunak nolabait biltzeko beharra. Hutsune horri erantzuteko asmoz sortu dute *Hirinet.net* webgunea. Informazioa eta entretenimendua jorratuko dituzte eta herritarren partaidetza funtsezkoa izango da.

Bestalde, apirilaren 21ean Gasteizko euskalgintzako hainbat elkar-tek antolatuta *Euskaraz bizitzera goaz!* eguna egin zuten. Kalejira, kantu emanaldia eta mintzodromoa izan zituzten, besteak beste, eta euskararen ofizialtasuna aldarrikatu zuten.

BAHEA

Bea Sallaberryk *Han eta hemen blogean* esanak: “Iparraldeko hainbat egitura publikotan Erakunde Publikoaren politika eramateko euskara teknikariak sartu zirenetik gauza frango aldatu dira.

Azken hilabeteetan, hainbat aitzinamendu egon dira, seguraski antolaketa eta ikusmolde berri bati zor zaizkionak. Aipamena merezi luke tenak anitz dira baina bereziki badira bi: bai Biarritzeko Herriko Etxeak, bai Hego Lapurdiko Herri Elkargoak onartu, egituratu eta martxan eman dituzten euskararen erabilera planak. Uste dut egitura publikoetan lehen aldia dela horrela deitzen direla. Lehen deitzen ziren euskararen aldeko neurri edo hizkuntz politika, nik dakita, baina planaren itxurarenatik oinarritzko puntuak zituzten eta izena neondik ere. Seguraski hutsune frango izanen dituzte beste herrialde batzuetan, bereziki hegoaldean, egiten denarekin konparatuz. Alta, eremu osoan hizkuntzak duen eza-gupen eskasa eta arau ezari behatuz, hasiera onak dira.

Biarritzeko adibidea da gehien behatu dudana (...). Hasteko, euskara buru belarri defendatzen du duela gutxi arte euskararekin hozpila zen hautetsi batek eta ez dut uste itxurakeriatan ibilki denik, diskurtsoaz gain hainbat neurri bultzatzen baititu: beraz bada euskararen pertzepzio eta tratamenduaren aldaketa handia. Bigarrenik, Biarritze da herri bat iparraldekoa zeinetan duarik gabe euskarak gehien egin duen gibelera, bizkitartean, lehentarik izan da hizkuntz politika bat gauzatzen”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:
www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Ongizate estatua desegiten ari dira

PPren Espainiako Gobernuak pauso berria eman du langile klasearen eta herri sektoreen kontra. Duela aste batzuk lan erreforma inposatu zuen, kaleratze merkeagoak eta prekarietate handiagoa ezarri. Hezkuntzan ere, kalitatean nabaritutako diren murrizketak egin ditu. Orintsu osasungintzako erreforma eraman du aurrera eta kopagoa ezarri du, herritarrek zergen bidez jadanik ordaintzen duten arren. Pentsiodunek, hemendik aurrera, euren botiken zati bat ordaindu beharko dute, eta askorentzat gehiegizko kostua izango da. Osasungintzako erreformaren barruan, berandu baino lehen etorriko den hurrengo urratsa izango da medikuarengana joateagatik ordaindu beharra. Eta segi eta segi, murrizketekin.

PPren Gobernuak ongizate estatua desegiten jarraitzen du, Espainiako Estatu osoko milaka langilek euren izerdiz eta borrokaz lortua. Merkaturaren aurrean belaunikatu dira (banku handiak, inbertsio fondoak, aseguruak...) eta espekulatzaila lotsagabe zurrupatzailaiek agintzen dutena zehatz-mehatz betetzen ari dira. Euren dirua bermatzea baino ez dute buruan, horretarako gosea, miseria eta munduan milioika lagun heriotza eragiten badute ere. Merkaturak politikari miserableak dituzte lagun, haiek ohoratzen dituzte. Politikariak eta gobernuak ez dira gai alternatibak aurkezteko, badauden arren, eta ez dira gai politika, espekulatzaila zurrupatzailen interesen gainetik jartzeko.

Euskal Herrian, gure lurraldean ere inposatu nahian ari diren politika horiek, subiranotasun ekonomiko-politikoaren eta independentziaren aldeko borroka handiagoa eragin behar lukete, gure herria izan dadin politika horiek erabakitzen dituen. Zer egingo dute EAEko eta Nafarroako administrazioek? Belaunikatu egingo dira horiek ere? Okerrena gertatuko delakoan nago.

Juan Mari Arregi



Krisiak aupatutako beste bat

FRANÇOIS HOLLANDE

izango da seguruenik Frantziako hurrengo lehendakaria, baina adi, hamar egun falta dira oraindik maiatzaren 6ra arte eta denetarik gerta daiteke. Nicolas Sarkozy, alabaina, oso zaila du Eliseoko giltza berreskuratzea. François Bayrouren zentrismoa eta Marine Le Penen eskuin muturra ia osorik bereganatu beharko lituzke irabazteko eta hori ez bide da gertatuko.

Frantzia gogaitu da Sarkorekin eta listo. Hori da nagusiki lehen itzuliak adierazten duena: V. Errepublikako lehen lehendakaria da Eliseorako bigarren ahalegineko lehen itzulian galtzen duena.

Hollandek, aldiz, txukun eutsi dio eta, gutxiगतik bada ere, irabazten hasi da. Ezker osoaren sostengua izango du hurrengoan, eta baita Sarkozyren aurkakoena ere. 1981ean hautatu zuten François Mitterranden ondoren, PSk lortzen duen bigarren lehendakaria litzateke, eta nahiko gertaera harrigarria batez ere ikusirik azken urteetako PSren barne giro nahasia eta beheranzko joera.

Baina krisia dago tartean, horrek azaltzen du gehiena. Sozialdemokrata edo eskuinekoa izan, herritarrek irtenbideak behar ditu, eta botoa medio, dagoeneko Europako hamar gobernu erori dira krisiaren ondorioz. Oraingoan, Frantzia sozialaren zati handi bat gogotik beldurtu da ongizate estatuaren apurkako desegitearekin.

Baina krisia bakarrik ez, Sarkozyren bost urteko ibilbide lortasua ere giltzarri da emaitzetan. Bere handinahikeria, autoritarismoa eta estilo zakarrak frantziar askoren arbuioa ekarri du, izan



hauek ezkerreko edo ez; besteak beste, frantziar *politesse*-aren aurkako sinbolo bilakatu da agintari eskuindarra.

ALTERNATIBA kutsua izan da Hollanderen hauspoa. Merkatuekiko berba jario gogorra erabili du, batez ere aurrekanpainan; estatu soziala defendatu behar dela aldarrikatu du; ez datorrela bat Merkelekin eta ez dela haren meneko izango, Europar Batasuna bere zain dagoela aldaketei ekiteko, austeritate politika bakarrik ez, hazkundera bultzatuko duten politikak ere beharrezkoak direlako. Eta jendeak sinetsi dio.

Beste gauza bat da lehendakari hautatzen badute noraino aldatuko diren Merkelen eta Europar Batasunaren egungo norabideak. Eta errealista izanda, ez dago esperantzarako tarte handirik. Europako sozialdemokraziak ere urteetan jorratu du egungo barazki hauek ematen dituen baratze neoliberalak. Orain ez dela bere gustukoa? Ez dago argi, ez behintzat Grezia, Portugal eta Espainian sozialdemokraziak izandako jokaera ikusita.

Aitzitik, bada arrazoi asko pentsatzeko krisiaren aurkako norabidea oso antzerakoa izango dela. Batetik, Alemaniaren eta merka-

tuen indarrari aurre egiteko borondate nahikorik ez da antzematen EBn eta herritarren presio nahikorik ere ez. Finantza munduaren kontrola eta arautzea giltzarri dira norabide horretan, Europako Banku Zentralak egiazko banku publikoaren funtzioa eskuratzea ere bai, eta baita zorraren ordainketan baino ekonomia hazkundera inbertitzea ere. Ez dirudi Hollandek ezinbesteko aldaketa handi horren lidergoa hartzeko asmorik duenik. Maiatzaren 6an Sarkozy irabaztea baino ezusteko handiagoa litzateke hori.

ESKUIN MUTURRARENA da hauteskunde hauetako emaitzik kezkarriena. FNk inoizko emaitza onena lortu duelako: alabak (%18) aitzak (%16) 2002an baino bi puntu gehiago lortu ditu orain. Eta kezkarria bai, baina ez berria, ez FN beraren ibilbideगतik, ezta ere azken urteetan eskuin muturra eta jarrera xenofoboak Europa osoan izaten ari diren gorakada kontuan hartzen badugu: Austria, Belgika, Italia, Hungaria, Eslovenia... Europako Legebiltzarreko 2009ko hauteskundeetan 17tik 35era pasatu ziren gisa honetako alderdien eserlekuak. Krisiak, beldurrak eta ezjakintasunak bultzatutako norabidea da, 1929ko krisiaren atarian ere Europa osora indarrez zabaldu zena. Autoritarismoa izan zen orduan estatu askok krisiari emandako erantzuna eta, gaur egun ere, tentaldi bera antzematen da demokrazia labelaren atzean ezkutatutako hainbat gobernuen atzean ere.



Aljeriakoak oraino soldadu frantsesei loa galarazten die

50 urte bukatu zela Aljeriako gerra odoltsua, Parisko Gobernuak eta FLN-k Eviango ituna sinatuta. Baina mende erdiz sendatu gabeko zauriek zornetuta diraute. Hainbeste odol eta basakeriaren egiak ez dira azaleratu oraindik. Aldiz, beren hogeitertean gerra hartan soldadu ibilitako frantses gaur jubilatatu batzuek lehen urrats ausarta eman dute.

GAU TXARRA EDUKIKO DUDALA badakit, baina idatzi nahi dizut. Gure azken bileran izan dut beste lagunak bezala hitz egiteko aukera, baina 'lehertuko' nintzela uste nuen. 2003an ere, Giza Eskubideen Ligak torturaz lekukoekin antolatutako bilkura hartan lanak izan nituen nire azalpenak bukatzeko. Gaur hitzez zuei esateko neukana laburbilduko dizut hemen...".

Pierre Rembaud da honela idatzi zuena 2008ko azaroaren 4an. Haren lekukotza dago *Association des Anciens Appelés en Algérie et leurs Amis Contre la Guerre* (4ACG) elkar-tearen gunean. *Appelés* hegotarrok deitzen ditugu *kintoak*, derrigor soldadu eramandakoak. 2004an sortu zuten elkarte, Aljeriako gerraz oroitu, gogoeta egin, lekukotasunak azaldu eta bakearen alde lan egiteko.

Idatzizkoek gain bideozko testigantzak ere eskaintzen ditu 4ACGk; joan den martxoan La Rochellen egindako mahai-inguruaren 15 minutuak entzutekoak dira, gogorak, ausartak, egitiak.

Baina goazen, berriz, Pierre Rembauden idatzira. Hona zati batzuk, Kabiliako herrixketan 1956ko irailetik 1958ko uztailera bizi izandakoez. "Oso gogorra zen, baina guduka ari diren erregimentuetan ohikoa: kide askoren-

tzako beldurra, izerdia, malkoak eta odola, beste-tzuentzako heriotza. Helikopterozko lehenbiziko operazioan kamarada bat hil zuen beste batek, arma garbitzen ari zela. Hildakoa *nobatoa* zen ni bezala, nire eskualde berekoa, bertarainoko bidaia osoa elkarrekin egina genuen. (...) *Djebeleko* [mendialdeko] operazio horiek ezagutzen dituzu, gaueko guardiak hezurretaraino beldurtuta... Baina 50 urteotan nire bizia gehien inarrosi duena tortura izan da. (...) Nire soldadu-lagunak bezala, ni ere askotan izan nintzen torturen lekuko. *Gégène* [gorputza elektrizitatez astintzea, *picana* latinoentzat], *baaignoire* [espainolen *bañera*], *enton-noir* [inbututik ura edanaraztea], *chevalet* [espainolek *potro* deitua], *pendaison* [zintzilikatzea]... hori guztia ikusita nago.

Sufrikariozko oihiak, oinazezko garrasiak, konortea galtzea, ondoren heriotza... Behin baino gehiagotan bi edo hiru soldadu joan izan gara azpiofizial batekin gorputzak errekaratzen. Txakalek azkar desegiten zituzten... Hogeitertean izanik horrelako munduan erortzen bazara, ez zara berdina itzuliko.

Gau batean, sarritan mozkortzen zen azpiofizial bat torturako etxolan sartu zen, han besoetatik zintzilikaturik zegoen aurretik *gégène*a

Aures Chauouia guneak eskaintzen duen irudian, soldadu frantsesek zaintzen dute (esateko modu bat da) esku eta hankak lotutako preso aljeriarra, ustezko matxino independentista. 1960 ingurukoa behar du. Kolonia frantses hartako azken gerra 1954an hasi zen eta 1962an bukatu. Frantziak 25.000 militar eta 2.800 zibil galdu zituen. Aldiz —alde batera utzita FLN eta MNA aljeriarren arteko gudu zibilean hildakoak (10.000 inguru) eta OAS ultraeskuindarrak eraginak— Aljeriarrek zenbat jende galdu zuten zehaztu gabe dago oraindik. Gerrillarietan 150.000 inguru hil zituzten frantsesek. Zibil *indigenen* kopuruaz eztabaida handiagoa da: Aljerreko agintariek milioi bat hil aipatzen dituzte, metropoliko iturriek 400.000 arteko kopuruak aitortzen. Askok torturapean banaka *garbituak*; eta herri osoak tiroz, artilleriaz edo airetik bonbaz suntsituta.

aplikatu zioten zigortu bat, askotan horrela hasten zen. Militarrek ukabildadaka ekin zion gizagaixoari eta gure aurrean hil zen. Ofiziala han baizen, txofer bati agindu zion hura eramatea erreka aldera... Nola egingo duzu lo horren ostean?

Ikusi ditut torturatuak zintzilik beso batetik eta zango batetik. Guardiako berreroak (tenienteak betetzen zuen 'lan' hori) presoari galdetzen zion: "Hitz egingo duzu?". Eta tipoak oraindik konortea pittin bat baldin bazuen baietz esango zuen. Baina lurra ukitu orduko erortzen zen, orduan berriro jipoitzen zuten, eta ez zen gehiago mugitzen.

Beste batzuetan, operazio batean herrixka batera joan eta ordena zen bertako biztanle 'ar' guztiak biltzea, haiei FLNen sartzea eragozteko. *Axuantak* [espainolen *brigadaren* pare, frantsesek *adjudant*] orduan agintzen zuen haiei zakurrak botatzeari, jendearen haragi puskarik eta janzkiak denak nahasten ziren".

Demokrazia torturatzailerak

Frantzia demokratiko eta errepublikanoko herritar gazteak ziren Aljeriako bortuetan bezala hirietako *kashba* eta txabolategian sarraskiok eta okerragoak burutzen zituztenak. Gero etxeratzen ziren, eta inork gutxiak hitz egin zuen horre-



taz, ez etxean ez kalean. Mende erdi pasa arte, gutxienez.

Gaur nekazari erretiratua den Georges Treilhou Algerian zegoen soldadu 1956tik 1958ra artean. Kezka larriak zituen. Gerrako borroketan erakutsitako adorea gatik domina emana zioten, zakarrontzira bota zuena. Ez zara arriskatzten aberriaren alde, burkideen alde baizik. Norbere beldurra kontrolatzea baizik ez da, esan du joan den martxoan La Rochelleko bilkuran, apaltasunez. Hori ez baitzen garrantzizkoena: preso hartutakoak gosez hiltzen uzten zituzten soldadu nazkagarriena, horiena bai zen larria eta aipatzekoa.

Ikusitakoak ezin jasanik, kapilau militarri kontatu zion bere ezine-

gona. Apaizak Biblian aurkitu zion erantzuna: “Jende barbaroari, metodo barbaroak”. Georgesen fedea ez zuen horrekin gutxiago sufritu. “Etixeratutakoan, herriko apaizari kontatu nizekion Algerian egindako basakeriak. Berak erantzun: ‘Algerian ez da errugaberik kondentatzen’. Baina zer zekien berak Aljeriaz? Harrez geroztik, garai hartako kontuez ez nintzen inorekin mintzatu, ez emaztearekin, ez seme-alabekin”.

Gainerako soldaduak ere isilik geratu dira luzaz. Bernard Gerlandek ere ez zion ezer kontatu ez familiari, ez sindikatuari eta ez Alderdi Komunistako herriko taldeari. Harik eta Bertrand Tavernier eta Patrick Rotman-en *La guerre sans*

nom (Izenik gabeko gerra, 1992) filma ikusi zuen arte. “Filmak nire buruaren aurrez aurre jarri ninduen: eta nik zer egin dut? Alderdi-ko burkide bati aipatu nion, militante gogorra. Galdetu nion ea berak ere Aljeriako gerra egina zuen. Ez zuen hitz egin nahi. Berriro galdetu eta negarrez hasi zitzaidan”.

2003an Gerlandek *Ma guerre en Algérie* publikatu zuen, antzerki bat non omendu nahi duen preso bat hil dutena. “Nik ez nuen Aljeriara joan nahi, uste nuen hara zertan joanik ez genuela. Baina bidali ninduten eta gerra egin nuen. Azpiofizial izateko ikasi nuen bertan. Seriotasunez aritu naiz, lan egin dut, ondo baloratu naute. Baina halako batean heldu zen exekuzio hura...”. Lan zikin bat, gauez eta odol hotzez egin beharrekoa, nagusien aginduz, nork eta berak, kolonia hartan oinik jarri nahi ez zuenak.

Gaur Gerlandi inporta zaiona da ulertzea zer den gizon bat barbaro bihurtzen duen prozesu hori. Eta zer hain urte luzez isilik edukitzera behartzen duena.

Aljeriako gerraren memoria lantzen duen 4ACG elkartearen lehendakari daukate Jacques Pâris de Bollardiére jeneralaren alargun Simone. Bollardiére izan zen Aljeriaren tropek erabilitako torturar salatu zituen militar buru bakarra. *Arrestatu* eta degradatu egin zuten. Gero amnistiek gainerako erantzukizunak estali dituzten arren, Frantziak ez du errehabilitatu Bollardiére. Etxeko disidenteak dira beti barkamenen zerrendetan azkenak. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Xabier Mendiguren Elizegi

Bobbyak ala zipaioak



raindik ere Iñigo Cabacasen hilketaren beroan ari naiz lerrook idazten; zuek irakurtzerako denbora pixka bat igaroko da, gaia apur bat ahaztu ere bai, eta saiatuko naiz ez hoztasunez baina distantzia moduko batez idazten.

Urrunera begiratzen hasita, hogeita hamar urtera egin dezakegu atzera. 1982: orduan hasi ziren ateratzen Ertzaintzako lehen promozioak, Arabako Berrozin PNV bere mutilak entrenatzen lehendik ari zen arren. Ez naiz historialari lanetan hasiko, ez da hau tokia ez ni espezialista, baina beharbada komeni litzateke hura ezagutu ez zuten gazteei esatea herrian ilusioz bizi izan zela garai hura: batetik, Guardia Zibilak eta Polizia Nazionalak Hego Euskal Herritik alde egitea nahi zen, eta haiek ordezkatzuko zituen euskal polizia bat beharko zen horretarako, Komunitate Autonomoan bederen; bestetik, Ertzaintza bestelako polizia bat izango zela esaten zitzaigun behin eta berriz: hurbila, bertakoa, profesionala, jendea errespetuz tratatuko zuena... hau da, frankismoko okupazio indarrak izan ez ziren guzti-guztia. Konparazio bat ere erabili zen hasierako garai hartan, polizia-eredu hori irudikatzeko: Ingalaterrako bobbyen tankerakoak izango omen ziren, jendea zapaltzeko ez baizik laguntzeko egongo zirenak, pistolarik gabe... Irudi horren puntu inuxentea ukatu gabe ere, balio du oroitzeko zer-nolako espektatibekin jaio zen polizia berri hura.

Gero... gero gauza asko, eta ez da erraza denok ados jartzea historiaren bertsio batean. Kontakizun objektiborik ezean, nirea laburbiltzen saiatuko naiz hemen: Ertzaintzak neurri batean ordezkatu zituen guardia zibilak eta polizia nazionalak; ez erabat, ordea, hemen segitu baitute, guztion zoritxarrerako; polizia integralaren zereginak betetzeko gauza zirela erakutsi zuten oro har, arlo horretako profesionaltasuna neurtzen ez badakit ere; aldi



DANI BLANCO

berean, baina, sardinzaharren eta gris-marroi-urdinen lekua hartzeaz bat, haien zenbait ohitura eta aztura bereganatu zituztela ere nabaria da; beharbada ezin bestean, poliziak polizia baitira hemen eta nonahi: estatuak daukan bortxaren monopolioaren eskumakila. Kontuak kontu, esango nuke hasieran pizten zuen ilusio hori maxkalduz joan zela pixkanaka, eta zapuztuz geroago.

Zenbaterainoko garrantzia izan du prozesu horretan ETaren kontrako borrokak? Handia, seguru asko. Ertzaintzak “borroka antiterroristan” emandako pausoen arabera joan zen hazten erakundearen bortizkeria ere: lehenengo, Espainiako armadatik zetorren ertzainburua hil zuten, Diaz Arkotxa; gero, lehergailuak indargabetzen hil ziren ertzain batzuk, tiroketetan

erori ziren beste zenbait (Garcia de Andoain, Mentxaka...); informazio-ardurak zituztenak bihurtu ziren helburu geroago (Goikoetxea, Doral, Uribe...), eta trafikoa zaintzen zebiltzan ertzain xeheak atentatu-xede izan ziren azkenik. Beste aldetik ere zerrenda beltz askoa dago: Juan Mari Ormazabal eta Ina Zeberrioren hilketak, *Anukeri* heriotza iluna, Beroiz eta beste askorekin erakutsitako jokabide zikina, tortura kasuak... Baina ez bakarrik hori: oroitu Calvo gizajoa, komisarian hila, edo Jose Atanes, errepidean tiroa jo ziotena; oroitu Lasa eta Zabalaeren hileta tristea, hainbat manifestaziotan emandako egur merkea, sarri erakutsitako harrokeria...


Ez da elkarrekiko irainen inbentarioa egiteko garaia, aurrera begiratzekoa baizik. Zipaioak bobby bihurtzea ameskeria izan liteke, baina polizia berri bat behar dugu, beste estilo bat erakutsiko duena eta herri-tarren konfiantza irabaziko duena. Horretarako ez litzateke abiapuntu txarra, orain 30 urte ez bezala, hemendik aurrerako ertzain guztiak euskaldunak izango balira. ■

Ingalaterrako bobbyen tankerakoak
izango omen ziren, jendea zapaltzeko
ez, baizik laguntzeko egongo zirenak,
pistolarik gabe... Irudi horren puntu
inuxentea ukatu gabe ere, balio du
oroitzeko zer-nolako espektatibekin
jaio zen polizia berri hura



ASTE HONETAKO

zozketa



Ibernalo Landetxea

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Kanpezu ARABA
www.ibernalorural.com

1

Ekain berri



Ekainberri

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA
www.ekainberri.com

2



**INDOOR
KARTING**

Tolosa Indoor Karting

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Iparraldeko autobidea, 433. irteera
Tolosa GIPUZKOA

www.indoorkartinggipuzkoa.com

3



Igor Arzuaga eta Luis Vil

Mara mara

5 CD opari

Gaztelupeko Hotsak
Soraluze GIPUZKOA

www.hotsak.com

4



Okatxu

2 kamiseta opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2318. Argia)

BESARO LANDA HOTELA

- Joseba Etxebarria Uriarte (Larrabetzu)

BILBOKO EUSKAL MUSEOA

- Tere Insausti Irastorza (Zaldibia)
- Jose Ramon Egiluz Ugarriza (Berriatua)
- Iñaki Sagasta Arana (Arrasate)

JORGE OTEIZA FUNDazio MUSEOA

- Aniturri Institutua (Agurain)
- Maria Jesus Cereceda Garaio (Bermeo)
- Joxe Mari Ibarburu Arotzena (Donostia)

TXALAPARTA: EMAKUME BAT Annei Ernaux

- Josu Aldama Larena (Bitoriano, Zuia)
- Mayi Iza Agirre (Hondarribia)
- Isabel Razkin Lizarraga (Uhartea-Arakil)
- Amaia Alvarez Uria (Gasteiz)
- Auro Ansoategi Altzibar (Mutriku)

ERTZEKO ZATIAK Jon Sarasua

- Idoia Jauregi-arraburu Abasolo (Arrasate)
- Gorka Bueno Mendieta (Bilbo)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia



lanean
lagunekin
etxean

euskARAZ

kalean
eskolan

Bizi

euskara

jolasean



Gipuzkoako Foru Aldundia